

**Nekazaritzako  
etorkizuneko  
belaunaldiak  
NPBren  
erreformaren  
aurrian**

**Euskal baserriar  
mugimendutik begira**



# Aurkibidea

- 07.** 1. sekzioa  
EAEko belaunaldi-txandaketaren argazkia
- 18.** 2. sekzioa  
NPB eta horren ondorioak euskal nekazaritzan. Elikadura-buru-jabetzan oinarrituriko ikuspegia
- 34.** 3. sekzioa  
NPB berriaren plan estrategikoak: nekazaritzan belaunaldien txandaketa gertatzeko aukera bat
- 53.** 4. sekzioa  
NPBtik harago begiratzea: elikadura-buru-jabetza elikadura-politiketara bideratzeko
- 60.** 5. sekzioa  
Ondorioak. NPBr buruzko eztabaida sozialerako hurrengo urrats eta aliantzak

Antolatzaileak:



Laguntzailea:



Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Baimenduta dago obra hau kopiatzea, banatzea eta jendurrean hedatzea, betiere, baldin eta haren egileta aitortzen bada eta xede komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ez dago obra hau aldatzerik, eraldatzerik edo hartatik eratorritako beste obra bat sortzerik.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

# Sarrera

Honako testu hau egilearen, Bizilur eta Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra taldeen artean gauzatutako ikerketa-prozesuaren emaitza da, eta EAEko nekazaritza eta abeltzaintza sektorean belaunaldien arteko txandaketa zertan den eta horren inguruan Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) erreformak zer aukera eskain ditzakeen aztertzea du xede.

Ikerketa hau taxutzen hasi ginenean, gure hasierako helburua elikadura erdigunean jarriko zuten tokiko politika publikoak eraikitze gakoak eskaintzea zen. Eta horrek lehenengo unetik bertatik honako hau pentsatzea dakar: nola berma dezakegu gure udalerrietatik elikagaien ekoizpena? Gure biztanle aktiboen % 1ek soilik badihardu nekazaritza, nola sustatuko dugu belaunaldi berrientzat emankorra eta erakargarria izango den nekazaritza sektorea? Gure eskualdeetan hainbat ekintza ari dira abian jartzen jada: Elikadura Kontseiluak, formazio bereziak, tokiko kontsumoaren egituratzea...

Baina konturatu ginen sustatzen ziren ekimen horiek denak –politika publikoei atxikirik daudenak, batik bat– beste politika eta erabakien bilbe handiago batek zeharkatzen dituela, diru-laguntzen, muga-zergen, flexibilizazio eta debekuen bidez, oso era nabarmenean ekoizpen-eredu bat bestearen aurrean lehenesten duena. Elikadura-burujabetza<sup>1</sup>, gure iritziz, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik jasangarria den nekazaritzako ekoizpena garatzeko esparrua da, arrazionala, lurraldea garatzeko eragilea eta ekoizleen duintasunean oinarritua. Europar Batasuneko Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB), CETA eta TISA gisako merkataritza askeko itunek eta azpiegitura handiek eredu produktibista eta intentsiboa ahalbidetzen dute, eta horrek lurrak eta baliabideak gero eta esku gutxiagoren artean metatzea

<sup>1</sup> Elikadura-burujabetza herriek elikagai nutritiboak eta kulturalki egokiak, edonorentzat eskuragarriak, eredu iraunkorrean eta ekologikoki ekoizkizateko eta herriak berak elikapen zein ekoizpen-eredua erabakitze eskubidea da. Elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituzten pertsonak elikadura-sistemen eta politiken erdigunean kokatzen ditu horrek, merkatuen eta enpresen eskakizunen gainetik, alegia. (Vía Campesina, Nyéléniko adierazpena, 2007)

eragiten du, bai eta landa-eremuaren despopulazioa eta nekazaritzaren prekarizazioa ere. Eta elikadura osasungarri eta jasangarrirako eskubidea ez da bermatzen, inondik inora.

Beraz, prozesu honetan behin eta berriro agertu zaigun kezketako bat nekazaritzako sektoreko belaunaldien arteko txandaketa izan da. Hori dela eta, lehenik eta behin, egoeraren irudi bat eskainiko digun ikerketa egin nahi izan dugu, ondoren, elikadura-burujabetza oinarri hartuta hainbat jokaleku pentsatu ahal izateko. Une honetan, Nekazaritza Politika Bateratuaren egungo erreformak aukera historikoa dirudi haren definizioan, eskaintzen dituen tresnetan eta etorkizunerako inplementazioan eragiterik izan dezagun, eta horregatik, espazio garantzitsua eskaini zaio dokumentu honetan.

Txosten hau egiteko, berrogei elkarrizketa egin dira 2018an: baserri-tarrei, tokiko agintariei eta Euskadin eta Estatuan eta Europako beste eskualde batzuetan elikadura-burujabetzaren aldeko mugimenduko parte diren militanteei. Dokumentu honetan partekatu ditugun ideietako asko elkarrizketa horietatik ondorioztatu ditugu, eta komatxoz nabarmedu ditugu testuan bertan<sup>2</sup>. Ikuspegi horiei esker, herrietan, tokiko eta nekazaritzako ikuspegitik, politika publikoak nola ulertzen eta erabiltzen diren ulertzen dugu. Politika “ez mesedegarriak” euren autonomiari eutsiz eta ekoizpen eredu jasangarriak ulertzeak bestelako politika batzuk eraikitze gakoak ematen dizkigu. Eskerrak eman nahi dizkiegu denei haien prestutasuna, laguntza eta indarragatik. Nahi dugun bitzita bitztea ahalbidetuko digun sistema baten aldeko borrokan erreferente dira.

Gainera, ikerketa bideratu zuen erreferentzia-taldea osatu zen eta, osteko saioetan ere kontraste talde gisa jardun izan du. Partaide izan dira baserriarrak, EHNE-Bizkaia sindikatuko, Etxalde eta Bizilurreko kideak.

<sup>2</sup> Bizkaian eta Araban, lehenengo sektorean, nekazaritza, abeltzaintza eta mahastizaintza ardogintza diharduten pertsonekin egindako elkarrizketa erdi-egituratuetatik lortutako ekarpenetan oinarritua. Tokiko agintariekin eta lehenengo sektoreko belaunaldien txandaketaren inguruan lanean ari diren bestelako eragileei egindako elkarrizketa erdi-egituratuetatik lortutako ikuspegiekin osatua. Guztira, berrogei egin dira. Elkarrizketatu ditugun pertsonen izena isilpean gorde da.

Aurretik aipatu dugun bezala, Euskadin, gaur egun, belaunaldi txandaketaren egoera deskribatuko dugu lehenik eta behin, eta etorkizuneko nekazarien soslaia identifikatuko dugu ondoren. 2. sekzioan, NPB zer den sakonduko dugu, bai eta euskal nekazaritza-sektorean duen eragina ere. 3. sekzioan NPBren erreformak eskaintzen dituen gakoak eta aukerak aztertuko dira, plan estrategikoen figura berriaren bitartez. 4. sekzioan esparrua zabaltzeko, eta NPBaz harago, belaunaldien txandaketarako garrantzitsuak diren bestelako alderdi batzuk aztertuko dira. Azkenik, 5. sekzioan, ondorio batzuk eta baserriaren belaunaldi berriei laguntzeko tresnak erakitzen eta hobetzen jarraitzeko proposamenak aurkeztuko dira.

Espero dugu dokumentu honen bidez eragiteko eta erabakitzekeo gaitasuna duten eragile publiko eta sozialen parte-hartzea sustatzea, NPB berria definitzeko eta lurralde bakoitzean nola egokitu erabakitzekeo. Beste modurik ez dago aldi berean elikadurarako eskubidea eta elikagaiak ekoizten dituzten pertsonen eskubideak bermatuko dituen bestelako nekazaritza eta elikadura eredu bat sustatzeko politika publikoak erabakitzekeo.

## 1. SEKZIOA

# EAEko belaunaldi-txandaketaren argazkia

### Belaunaldi-txandaketarik ez dago lehenengo sektorean: Belaunaldi berrien interesik eza?



Euskal Herrian, nekazaritza eta abeltzaintza diharduten pertsonen kopurua murrizten ari da; eta horrek ondorio latzak eragiten ditu nekazaritzaren eremuan eta gizartearentzat, oro har. Hori dela eta, nekazaritzako sindikatuen, landa-eremuetako biztanleen eta erakunde publikoen erronka nagusia da nola bermatu belaunaldien arteko txandaketa.

**“10 urtean ez da inor gertatu sektore honetan”**  
*Gizon abeltzaina*

Ardura horren ondorioz, hainbat argitalpen akademiko<sup>3</sup> eta artikulatu argitaratu izan dira komunikabideetan euskal nekazaritzaren etorkizunaren krisialdiari buruz.

Idatzi horietako askotan, seme-alabak hirietara nola joaten diren azpimarratzen dute, familiaren ustiatzea<sup>4</sup> utzita. Eta ez da Euskadin soi-

<sup>3</sup> Etchezarreta, Miren (1977) *El caserío vasco*, Bilbo.C. de Iturriaga eta M. Dañobeitia Fundazioa; Mauleón Gómez, José Ramón (1998), *Estrategias familiares y cambios productivos del caserío vasco*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia; Cruz Alberdi Collantes, Juan (2002), “*El caserío agrícola vasco en proceso de desaparición*,” *Ería. Revista Cuatrimestral de Geografía*, 57: 5–17; De Salinas y Ocio, Lorenzo MZ (2016), “Juventud agraria en el País Vasco,” *Impulso global a la agricultura familiar*, Foro Rural Mundial, Arkaute: Munduko Landagunea, [https://www.uaga.eus/wp-content/uploads/2018/05/INFORME-juventud\\_agraria\\_en\\_el\\_pais\\_vasco.pdf](https://www.uaga.eus/wp-content/uploads/2018/05/INFORME-juventud_agraria_en_el_pais_vasco.pdf)

<sup>4</sup> Esaterako, ikus:<http://www.ikusle.com/un-centenar-de-municipios-vascos-se-encuentran-en-grave-peligro-de-extincion-por-la-despoblacion/>

lik, Espainiako estatuko herrien erdia desagertzeko arriskuan dago<sup>5</sup>. Euskal Herrian, biztanleen % 12 soilik bizi da landa-eremuetan; Europako Batasuneko<sup>6</sup> herrialdeetan, aldiz, batez bestekoa % 26koa da. Baserriak utzi egiten dituzte, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) nekazaritza-ustiapenen titularren % 8,5 soilik dira

**“Sektore honetan kokatzea oso gogorra da. Ekoizten dugunaren truke ordaintzen dizkiguten prezioak baxuak dira, oso. Oso zaila da aurrera ateratzea”**

*Gizon nekazaria*

35 urtetik beherako pertsonak. El futuro incierto de los baserriak izeneko artikulua komunikabideek gai horren inguruan duten kezka islatzen du, eta bertan, hiru arrazoi aipatzen dira txandaketarik eza azaltzeko: “belaunaldi berrien interesik eza, ustiategi zailtasunak eta hiri-eremuak landa-lurraren gainean eragiten duen presioa erakuntzari begira.”<sup>7</sup>

Hein batean egia den arren, azalpen horrekin belaunaldi-txandaketarik ez egote horretan eragin duten faktore politikoak ezkutatzeko arriskuan gaude. Faktore horiek ez dira ezustekoak, politika publiko jakin batzuen, ekoizpen-eredu eta sektorearen eta erakundearen arteko harreman-patroi batzuen ondorioa dira, eta horiek baldintzatu egiten dute nork eta nola jardun dezakeen nekazaritzako ekoizpenean, bai orain, bai etorkizunean. Bestela esanda, arazoa ez da soilik gazteen interesik eza, arazoa politikoa da eta, beraz, konponbidea ere bai.

5 Conde, Raúl (2018), “La mitad de los pueblos de España está en riesgo de desaparición | Espainia,” *El Mundo*, 2018ko urtarrila, Espainako edizioa, saila: Demografia, <https://www.elmundo.es/espana/2018/01/27/5a6b9793468aebc5468b4696.html>

6 Gaindegia (2016), “Euskal Herriko geografia demografikoa: bilakaera eta joerak,” Gaindegia Udaltzaintzaren egindako azterlana, 13.

7 <http://www.euskalkultura.com/espanol/noticias/futuro-incierto-de-los-baserriak-en-eibar-de-220-caseros-apanas-quedan-poco-mas-de-dos-decenas-los-motivos>

## Zein dira etorkizuneko nekazariak?



Euskal Herriko nekazari eta abeltzainen belaunaldi berriak gero eta gutxiagotan dira euskal nekazari belaunaldi askotako familietako seme-alabak. Eta horrek eragin handia du belaunaldi-txandaketaren erronkari konponbidea bilatzeko orduan.

### Jatorria hiritarra da gero eta gehiago

Historian zehar, sektorean txertatzeko bide nagusia familia izan da; nekazaritzaren arloko ezagutza guztia belaunaldi batetik bestera transmititzen baitzen. Gaur egun, landa-eremuetatik gazteek alde egiten dutela asko aipatzen den arren, hirietatik landa-eremuetara itzultzen ere ari dira zenbait. Hau da, lehenengo sektoreari atxikitzen ari zaion jendea, gero eta gehiago, nekazari izan ez diren familietatik dator. Horrek esan nahi du bestelako formazio-espazioak bilatu behar direla. Horrela, bada, EUSTATen datuen arabera, nekazaritzako ustiategien ugazaba gehienek nekazaritzako esperientziaren bidez soilik ikasi duten arren (% 98,4 1989an eta % 85,4 2016an), nabaritzen da gero eta handiagoa dela ikastaroren bat egin duten, unibertsitate ikasketak edo ikasketa profesionalak edo nekazaritzarekin loturiko

**“Hasi nintzenean formazioaren falta sentitu nuen”**  
*Emakume abeltzaina*

beste formazioen bat duten ugazaben ehunekoa (% 1,6 1989an, % 14,6 2016an)<sup>8</sup>. Euskadiko hiru nekazaritza-eskoletan, 2003 eta 2005 artean graduatu ziren 225

ikasletatik, gehienak hiri-inguruetatik etorriak ziren. Baina formazioa egin ondoren, nekazaritzan geratzen diren guztien arteko % 10-20 horretatik, gehienek familia-ustiategi batekin jarraitzen dute<sup>9</sup>. Hau da, hirietako familietako gazteek nekazaritzaren munduarekin interes handia eduki arren, gehienek ez dute sektorean geratzea lortzen.

8 EUSTAT Datu Bankutik lortutako datuak, seriea: Euskal AEko ustiategi kopurua, ustiategiko buruak egindako ikasketen arabera. 2018ko azaroaren lehen eguna.

9 Cruz Alberdi Collantes, Juan (2005), “Jóvenes agricultores: perspectivas, planes de dinamización y dificultades de instalación en el País Vasco”, *Papeles de Geografía* 41–42: 10, <http://revistas.um.es/geografia/article/view/44221>

Nola egin aurre belaunaldi-txandaketa potentzial horren galerari? Nekazaritza-ekoizpen industrialaren ereduaren arabera, ustiategi bat abian jartzeko behar den kapital-inbertsioak ere –eragiten dituen arazo ekologikoetatik eta elikaduraren segurtasun-ezatik<sup>10</sup> harago– eragozpenak eragiten dizkie inkorporazio berriei; bereziki, lurra edo azpiegiturak herentziaren bidez lortzerik ez dutenei.

Aldiz, sargai asko behar ez dituen ustiategi autonomoa sustatzen duen neurri txikiko ekoizpen agroekologikoak askoz aukera bideragarriagoa eskaintzen die inkorporazio berriei, batez ere nekazaritzaren mundura iritsi berriei. Horren ilduan, lanbide heziketako espazioetan ere aldaketak haute-maten dira, ikuspegi agroindustrialago batetik agroekologiaren eta elikadura-burujabetzaren inguruko ikasgai gehiago txeratzte aldera. Beste alde batetik, nekazaritzako sindikatu batzuek –EHNE Bizkaiak, kasu– formazio agroekologikorako ildo propioak garatu dituzte. 2018an, esaterako, EHNE Bizkaiak 31 ikastaro eta tailer eman zituen, eta 400 parte-hartzaile izan zituen.

Azkenik, nekazarien arteko ezagutza trukea funtsezkoa da hasi berriei laguntzeko eta landa-eremuetan indarra hartzeko. Bisitak, mintegiak, auzolanak, lankidetzako proiektuak edo sozializatzeko espazioak antolatzea dira ezagutza trukatzeko bultzatzen ari diren aukera batzuk.

***“Eskoletara joan ohi zen jendea aldatu egin da. Asfaltoko jende gehiago joaten zen. Eta bestelako gauzak eskatzen. Beraz, eskolak ere aldatu egin dira apur bat. Baina eredu jakin baten alde egitea falta dute. Ez dira arriskatzen”.***  
*Emakume abeltzaina*

10 De Schutter, Olivier (2019), “Towards a common food policy for the European Union; the policy reform and realignment that is required to build sustainable food systems in Europe”, Brussels: IPES Food, International Panel of Experts on Sustainable Food Systems, [http://www.ipes-food.org/\\_img/upload/files/CFP\\_FullReport.pdf](http://www.ipes-food.org/_img/upload/files/CFP_FullReport.pdf); Patel, Raj (2009) “Food Sovereignty,” *Journal of Peasant Studies* 36, no. 3 (2009ko uztailak 1): 663–706, <https://doi.org/10.1080/03066150903143079>; Mattheisen, Emily eta Sofia Monsalve Suárez, (2016) “Peoples’ monitoring for the right to food and nutrition,” *Keeping seeds in peoples’ hands*, Right to Food and Nutrition Watch, Issue 08 (Heidelberg: Right to Food and Nutrition Watch Consortium of 26 civil society organizations), 16–17.

## Emakume baserritarrak


Emakumeek nekazaritza sektorean izan duten rola inbisibilizatu eta gutxietsi egin da historian zehar. Belaunaldi-txandaketa sustatzeko, joera hori aldatu egin behar da. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak 2011n egindako Genero-berdintasunaren diagnostikoa landa-eremuan lanaren arabera, landa-eremuetan gero eta emakume gutxiago dago. Eta emigrazio horren arrazoiak honako hauek dira:

Emakumeentzako lan-aukera gutxiegi egotea, eta bestelako faktore batzuk, hala nola: emakumeei zaintzeko betebeharra ezartzen jarraitzen duten estereotipoak, lan-jardun luzeak, presio soziala, kasurik gehienetan partekatzen ez diren etxeko ardurak, emakumeen lanaren aintzatespen ekonomiko, profesional eta sozialik eza eta gizonen bilakaera eta irekiera txikiagoa<sup>11</sup>.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da gaur egun 5.568 emakume baserritar agertzea nekazaritzako ustiategiaren titular gisa (2016ko azkeneko datuen arabera).

11 EMAKUNDEn aipatua (2012), “Generoaren araberako inpaktuaren bilakaera landa-garapenean eta nekazaritzan” Emakunde, 21, [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_evaluaciones\\_2/es\\_def/adjuntos/Desarrollo\\_rural.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjuntos/Desarrollo_rural.pdf)

## 1. irudia. Euskadiko nekazaritza-ustiategien titularrak 2016an, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera




Iturria: EUSTATen datuak, Familiako lana: EAEko pertsona fisiko titularrak eta ustiategien ugazabak, ustiategiaren titularren, sexuaren, adin-tartearen, aldiaren eta lurralde historikoaren arabera.

Azkeneko hamarkadetan Euskal Herrian gertatu den nekazaritzako ustiategien murrizketaren aurrean, landa-eremuetako emakumeek bizi dituzten tentsio eta zailtasunen gainera, sektoreko emakumeen kopurua gizonena baino askoz ere egonkorragoa izan da. 1989an, emakumeak EAEko nekazaritzako ustiategien titularren guztizkoaren % 19,4 ziren, eta 2016an, zifra hori % 38,2ra igo da EAEn. Bizkaian, zifra altuagoa da; emakume titularrak % 41 dira. Gipuzkoan, emaku-

meak % 37 dira eta Araban, nekazaritzako ustiategien titularren % 32. 1989 eta 2016 urteen artean, ustiategien titular ziren gizonen erdia baino gehiago galdu du sektoreak; baina emakumeen kopuruak bere horretan iraun du edo apur bat igo da aldi horretan bertan.

## 2. irudia. EAEko nekazaritzako ustiategien titularrak



Iturria: EUSTAT. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Errolda. INE: Nekazaritzako errolda. Geuk egina. Elaboración propia.

EAEn, emakumeen kopurua zergatik ez da gizonena bezain nabarmen jaitsi? Alde batetik emakume nagusiengatik da; senarrek nekazaritza-jardueratik kanpoko diru-sarrerak dituztelako titulu formal bat dutelako, edo, oro har, emakumeek gizonen baino bizi-esperantza luzeagoa dutenez, alargun geratzen direlako. Hala ere, horrek ez du azaltzen emakume gazteen iraunkortasuna. 2003az geroztik, 40 urtetik beherako baserriarren kopurua jaitsi egin da, baina abiadura desberdinean gertatu da emakumeen kasuan (% 22 jaitsi da) gizonen kasuaren aldean (% 44 jaitsi da).

Azkeneko urteetan izan den beste aldaketa bat izan da emakumeek ez dutela ezinbestean aukeratu behar ikasketak egin ala sektoreari

txertatu. Gaur egun, landa-eremuetako familiek, sarritan, ikasketak amaitzera animatzen dituzte euren alabak, etorkizunean zer egin erabaki aurretik<sup>12</sup>. “Ezaugarri horien guztien ondorioz, ‘landa-eremuko emakume berri’ identitatea berresten dute zenbait emakumek.”<sup>13</sup>

Emakumea nekazaritza-sektoreari atxikita, generoaren ondoriozko lanaren banaketa bizi du: erakundeetako aitzindari izatea, makinaren kudeaketa egitea eta erakundeen aurrean aurpegi ezaguna izatea gizonen zereginak izan ohi dira; administrazio-kudeaketa, gaztandegia edo kontserba-fabrika kudeatzea edo zaintzaz arduratzea, berriz, emakumeen zereginak izan ohi dira. Denborarik eza, emakumeak prozesu politikoetan inplikatzeko muga izateaz gain, haien esperientziei eta iguripenei buruzko datu gutxiago egotearen arrazoia ere izan daiteke. Hortaz, ikerlan honetarako elkarrizketatutako emakumeen laurden batak eten egin behar izan zuen solasaldia zaintza-lanak betetzeko; gizonen kasuan, ordea, inork ez zuen gauza bera egin behar izan. Emakumeekin izandako elkarrizketen batez besteko denbora 86 minutukoa izan zen; gizonekin izandako elkarrizketek, berriz, 119 minutu iraun zuten, batez beste.

**“Udalarekiko harremanetan, beti zuzentzen zaizkio nire lagunari. Bilera guztietan emakume bakarra nintzen. Eta tentsio handiko uneak izaten ziren. Baina azkenean, prozesua zaintzen ahalegindu naiz, herri honen parte gara eta. Eta parte garen aldetik, errespetu gaitzaten, eta gure seme-alabek ez dezatela inor entzun behar gutaz gaizki esaka, hori garrantzitsua da”**  
*Emakume nekazaria.*

Beraz, nekazaritza-eremuan sartzen diren emakume gehienek erronka hirukoitza daukate: sektore maskulinizatu batean hastea, leku berri batean, eta emakumeak baztertzen dituen prozesu politikoekin.<sup>14</sup>

12 Ramos Truchero, Guadalupe (2010), “En el ángulo muerto de la ganadería familiar vasca: las mujeres ante el relevo generacional del ovino de leche”, *Lurralde: investigación y espacio*, nº 3:103.

13 *Ibidem*, 103.

14 De Gonzalo Aranoa, Isabel eta Leticia Urretabizkaiarena (2012), *Emakume baserriarrak: analisia eta etorkizunerako aukerak Elikadura Burujabetzatik abiatuta*, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen diru-laguntzarekin, Euskadi: Baserripress, 35.

Etxaldeko Emakumeak, elikadura-burujabetzaren aldeko mugimenduko emakumeek egin dituzte dagoeneko eurek *agroekofeminismoa* deitzen dutena eraikitzeke kontuan hartu behar denari buruzko zenbait proposamen.

## AGROEKOFEMINISMOA ETXALDEKO EMAKUMEAK MUGIMENDUTIK<sup>15</sup>

Ebaluatzeko, gauzatzeko eta planifikatzeko unean, genero-ikuspegia nekazaritzako erakundeetara eraman nahiko genuke. Kontzeptu bat eraiki nahi dugu: agroekofeminismoa. Ez da definizio bat, ez dago itxita. Guk hori esatean zer ulertzen dugun, gutxi gorabehera:

- Agroekologiak elikadura jartzen du erdigunean, eta horretarako, nola ekoizten dugun aztertu behar dugu, bai eta gure proiektuetan esplotazio harremanik ezartzen dugun ere.
- Familiaren barruan harremanak nolakoak diren, eta genero-harremanak aztertu behar dira.
- Aitzindaritza kolektiboetan sinesten dugu, eta ez gaitu pertsonalismoak erakartzen.
- Eguneroko bizimoduko zeregin guztietan erantzunkidetasunean pentsatzea.
- Proiektu agroekologikoetan antolamendua eta emozioak ez ezik, alderdi teknikoak ere balioetsi behar da.

## Nekazaritza sektorean migrazioa dago

Landa-eremuko biztanle migratzaileei arreta handiagoa jartzea ere merezi du; bai Espainiako estatutik kanpo etorri direnei, bai Euskadin jaio diren baina guraso eta/edo aitona-amona migratzaileak dituztenei. 2015etik aurrera Europan izan den aterpe-eskaeren igoera dela eta, migrazioaren gaia gai nagusi bihurtu da komunikabideetarako. Azkeneko urteetan, jatorrizko herrialdeetan zuzeneko eta egiturazko indarkeriatik ihes zihoazen milaka pertsonaren hilketa eragin duten Mediterraneoan zeharkatzeko bidaia beldurgarriak dokumentatu

15 Etxaldeko Emakumeak (2018), “Uzta jasoz; crónica de un encuentro de mujeres baserriarras”, Bilbo: Etxalde, 23.



dira. Pertsona horiek hartzeko, Espainiako gobernuaren erantzuna CEAREk laburtu du:

1984an Asiloari buruzko lehenengo Legea onartu zenetik, nazioarteko babes-eskatzailen kopururik handiena jaso zuen Espainiak 2017an: 31.120, hain zuzen. Hala ere, azkenean, onarpena jaso zuten pertsonen ehunekoa 2016koaren ia erdira jaitsi zen. Eta nazioarteko babes-sistema kolapsatuta dago, bai eskaeren tramitazioari bai harrera edo inklusio programei dagokienez. 2018ko otsailaren amaieran, 42.025 pertsona euren espedientearen ebazpenaren zain zeuden, eta erantzun horrek euren oraina eta euren etorkizuna baldintzatuko ditu<sup>16</sup>.

Komunikabideek jende-andana iristen dela aipatzen duten arren, errealitateak adierazten du Euskadiko biztanle etorkinen igoera apurka-apurkakoa izan dela azkeneko 20 urteetan, bai hiri-eremuetan bai landa-eremuetan. 1998an, jatorri atzerritarra duten biztanleak euskal biztanleriaren % 1,3 ziren. 2018an, zifra hori % 9,4 igoa zen, estatuko batez bestekoaren antzekoa, % 10. Pertsona horientzako enplegurako sektore gakoak nekazaritza, eraikuntza eta etxeko lanak dira<sup>17</sup>.

**“Autonomia izanik, nire diru-sarreraren erdia Gizar-te Segurantzara eraman behar dut. Beste batzuek, agian, lehenengo urteetan hori ez egiteko aukera dute; baina nik ezin dut, edonon susmagarria bainaiz.”**

*Gizon nekazari etorkina*

Elkarrizketetatik ondoriozta daiteke jatorri atzerritarra duten pertsonak direla nekazaritzako ustiattegietan kontraturiko lan-indarraren parte garrantzitsua, baina pertsona horiei buruzko datu ofizialak eskasak dira. Erroldatuta dauden egoiliarrei buruzko zifretan jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa ere jasotzen da, baina nekazaritzako errolda ez da modu berean banakatzen, eta ondorioz, ezin dugu Euskadiko lehenengo sektoreko naziotasun eta etnizitate-dinamikei buruzko ideia argirik eduki. Badakigu, ordea,

landa-eremuko udalerrri askotan horiek direla hazten ari diren biztanle-multzo bakarretakoa.

Datu ofizialetan immigrazioa, jatorrizko herrialdea eta naziotasuna terminoak erabiltzen dira. Jatorri desberdinak ikusarazteko modu horrek hainbat muga izango ditu Espainiako estatuan jaio diren etorkinen seme-alaben belaunaldi bat osatzen denean, eta hori gertatzen ari da. Espainiako erroldan ez dute jokatzeko Estatu Batuetan edo Britainia Handian bezala; han, arrazari eta etnizitateari buruzko galderak egiten baitira. Hala ere, 2011n, galdera berri bat agertu zen erroldan inkestatuaren gurasoen jatorrizko herrialdeari buruz, eta bigarren belaunaldiko immigrazioa kategoriatan sortu zen<sup>18</sup>.

Lehenengo sektorea oraindik ere eta gehienbat nekazarien familia-koa, maskulinoa eta zuria den arren, funtsezkoa da belaunaldi-txandakatzearen egungo argazkia edukitzea, beste populazio baserriar agroekologikoak, lehenengo belaunaldikoak, emakumeak eta/edo migratzaileak direnak, aintzat hartuko dituenak.

16 CEAR (2018), “Refugees in Spain and Europe,” Executive report (Comisión Española de Ayuda al Refugiado), 5, [https://www.cear.es/wp-content/uploads/2018/11/EXECUTIVE-REPORT\\_2018.pdf](https://www.cear.es/wp-content/uploads/2018/11/EXECUTIVE-REPORT_2018.pdf)

17 Eguía, Begoña et al. (2013), “La población inmigrante en las zonas rurales del País Vasco,” *Información técnica económica agraria* 109, no. 2: 218.

18 Estévez Hernández, Pablo (2015), “Censo y etnicidad en España. Historia de una ausencia,” *Papeles del CEIC. International journal on collective identity research*, no. 2: 24.

## 2. SEKZIOA

# NPB eta horren ondorioak euskal nekazaritzan

## Elikadura-burujabetzan oinarrituriko ikuspegia

### NPB: ordezeko belaunaldietarako oztoporik handiena



Aurreko sekzioan aipatu dugun bezala, kokatu berriak ikusaraztea eta animatzea ez da nahikoa ordezeko belaunaldiak izango direla bermatzeko. Garaitu beharreko eragozpen politikoak daude. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Europa nabarmendu egiten da nazioartean nekazaritza-sektoreari laguntza publiko handiak ematen dizkiolako (Etxezarreta, 2006, 51). Horrek esan nahi du nekazaritza-politikak bereziki eragin duela landa-eremuan nor bizi den eta nola bizi den. Txosten honetan belaunaldien ordezkera gehien baldintzatu duten politiketako bat azpimarratu da: Europako Nekazaritza Politika Batearatu (NPB).

Esan dugun bezala, NPBk baldintzatu egin du (ia desagerrarazteraino) belaunaldien txandaketa; Europar Batasun osorako marko orokor gisa sustatu duen ekoizpen-ereduak porrot egin duelako:

- Ekoizpenaren ikuspuntutik, elikagaien gain-ekoizpenean eta, ondorioz, alferrik galtzean, oinarrituriko eredia bultzatu du. EBn, 88 milioi tona elikagai alferrik galtzen dira urtero eta, Espainiako estatuan, 135 kg pertsona eta urteko, batez beste<sup>19</sup>.

19 Europako Legebiltzarra (2017), "Infografía: las cifras del desperdicio de alimentos en la Unión Europea | Noticias | Parlamento Europeo," Noticias Parlamento Europeo, 2017ko abenduaren 5a, <http://www.europarl.europa.eu/news/es/headlines/society/20170505STO73528/infografia-las-cifras-del-desperdicio-de-alimentos-en-la-union-europea>

- Ekologiaren ikuspuntutik, klima aldaketaren aurrean konponbi-deak eskaini beharreak, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan agrotokikoak eta antibiotikoak neurritz gandi erabiltzea ahalbidetu du eta, ondorioz, lurzorua, ibaiak, itsasoa eta jaten ditugun elikagaiak kutsatuz<sup>20</sup>. Horrez gain, ustiakuntzarako labore bakarrean oinarrituriko nekazaritza-sistema bultzatu du, eta horrek, biodibertsitatearen galera dakar<sup>21</sup>.
- Jendartearen ikuspuntutik, landa-eremuan<sup>22</sup> despopulazioa eta elikagaien ekoizpenean diharduen jende gutxiago egotea eragin du. Gure elikagaien jatorriaren eta gu, kontsumitzaileen arteko distantzia gero eta handiagoa<sup>23</sup> izatea ekarri du; halako eraz non hirietako eskola-populazio askok eta askok ez duten landa-eremuarekiko inolako harremanik, eta, ondorioz, ez eta nekazaritzari buruzko ezagupenik ere.
- Ekonomiaren ikuspuntutik, nekazaritzako ustiategien ekoizpen eta kapitalizazio eskala igo egin du. Baliabideak<sup>24</sup> eta botere korporatiboa elika-katean<sup>25</sup> zehar metatzea bultzatu du.

20 European Commission (2018). *Report from the Commission to the Council and the European Parliament on the implementation of Council Directive 91/676/EEC concerning the protection of waters against pollution caused by nitrates from agricultural sources based on member state reports for the period 2012–2015*. Brussels: European Commission; Silva, Vera, Hans G.J. Mol, Paul Zomer, Marc Tienstra, Coen J. Ritsema y Violette Geissena (2019). Pesticide residues in European agricultural soils – A hidden reality unfolded. *Science of the total environment*, 653, pp. 1532-1545.

21 Intergovernmental science-policy platform on biodiversity and ecosystem services (2018). *The regional assessment report on biodiversity and ecosystem services for Europe and Central Asia: summary for policymakers*. Bonn:IPBES; CNRS (2018). "Where have all the farmland birds gone?" [Online]. Hemen eskuragarri: <https://news.cnrs.fr/articles/where-have-all-the-farmland-birds-gone> [2019ko urtarrilaren 28an kontsultatua].

22 Kasimis, Charalambos (2010), "Demographic trends in rural Europe and international migration to rural areas | Agriregionieuropa," *Agriregionieuropa* 6, no. 21 <https://agriregionieuropa.univpm.it/content/article/31/21/demographic-trends-rural-europe-and-international-migration-rural-areas>; Collantes, Fernando eta Vicente Pinilla (2010), "El impacto demográfico de la inmigración en la España rural despoblada," Laneko dokumentua, Arloa: Demografía y población (Madrid: Real Instituto Elcano).

23 Clapp, Jennifer (2013), "Financialization, distance and global food politics", *Food sovereignty: a critical dialogue*, Yale, hitzaldian aurkeztutako dokumentua, irailaren 14-15 <http://citeseerx.ist.psu.edu/viewdoc/download?doi=10.1.1.405.193&rep=rep1&type=pdf>

24 TNI (2013). *Land concentration, land grabbing and people's struggles in Europe*. Amsterdam.

25 Wesseler, Justus, Alessandro Bonanno, Dušan Drabik, Valentina C. Matera, Luca Malaguti, Marcel Meyer eta Thomas J. Venus (2015). *Overview of the agricultural inputs sector in the EU*. Brussels: European Parliament; Mammana, Ivan. (2014). *Concentration of market power in the EU seed market*. [Online]. Hemen eskuragarri: <https://www.greens-efa.eu/files/doc/docs/056c-b230ebaf0357706c3996a7c68d1d.pdf> [2019ko otsailaren 1ean kontsultatua].

- Lanaren ikuspuntutik, laneko egituren eraldaketak behin-behineko lana eta lan ezegonkorra eragin ditu. Lan-baldintzak gero eta txarragoak dira, erdi-esklabotzara iristeraino<sup>26</sup>. Emakumeak eta baztertutako populazioa dira prekarietate hori pairatzeko posizioziorik urrakorrenetan daudenak<sup>27</sup>.
- Kulturaren ikuspuntutik, gauza folkloriko eta turistiko bihurtu da landa-eremuarekin loturiko dena.
- Osasunaren ikuspuntutik, eredu agroindustrialak gero eta dieta prozesatu, azukretu eta eraldatuagoa bultzatu du. Alergiak, gaixotasun kardiobaskularrak eta diabetesa gero eta maizago agertzeak gure elikadurak gaixotu egiten gaituela adierazten du. Gainera, Europar Batasuneko populazioaren % 51,6k gainpisua edo obesitatea du<sup>28</sup>.

Eremu politikotik behin eta berriz errepikatu dute nekazaritzako politikan aldaketak egin behar direla. NPB jasangarriagoa, bidezkoagoa eta osasungarriagoa bihurtzeko neurriak eta doikuntzak gehitzea ere lortu da. Hala ere, ez da zalantzan jarri NPB sustatzen eta lehenesten duen eredu agroindustrialia. Landa-eremuan eta landa-eremutik bizitzea bermatzen duen eredu-aldaketaren aldeko apustu irmorik ezak sortzen duen porrotagatik ere, Europako milioika ekoizle eusten dituen babesak izaten jarraitzen du NPBk; eta horietako asko ez lirateke hilabete bukaerara iritsiko horrek ematen dizkien laguntzarik gabe.

Agroindustrialaren bestelako ekoizpen-eredua eraikitzekeo zailtasunak egonik ere, badira aldaketa-prozesuen benetako alternatibak eta ereduak, oso interesgarriak. Alternatiba horietako asko elikadura-buruja-betzaren aldeko borrokak biltzen ditu, eragozpen politikoen aurrean bide eginez. Agiri honetan, ikuspegi horretatik ere aztertzen dugu

26 Hervey, Ginger (2018). "‘Modern-day slavery’ on the rise in Europe: report" [Online]. Hemen eskuragarri: <https://www.politico.com/news/story/2018/07/13/modern-day-slavery-on-the-rise-in-europe-report/> [2019ko otsailaren 6an kontsultatua].

27 Directorate General for Internal Policies (2017). *The vulnerability to exploitation of women migrant workers in agriculture in the EU: the need for a human rights and gender based approach*. Brussels: European Parliament.

28 Eurostat (2018). *Statistics explained: overweight and obesity - BMI statistics*. [Online]. Disponible en: [https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Overweight\\_and\\_obesity\\_-\\_BMI\\_statistics#Main\\_statistical\\_findings](https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Overweight_and_obesity_-_BMI_statistics#Main_statistical_findings) [consultado el 29 de enero de 2019].

NPB; gure ustez, ezinbestekoa delako eragozpen horiek eraldatzeko (edo, gutxienez, gaintzeko).

## Baina, zer da NPB?



1957an Erromako Ituna adostu zenetik, gaur egunera arte, NPB izan da EBren politikarik garrantzitsuenak. Politika horri ekin izanak lagundu zuen orduko Europako Ekonomia Erkidetza (EEE) sendotzen, eta, hasieratik, Europako aurrekontuaren gastu nagusia izan da. Hori dela eta, Europako herrialde batean nekazaritza-sektoreko politika publikoek buruz hitz egitea, ezinbestean, NPBr buruz hitz egitea da. Asko aurreratu den arren, politika honen oinarriko printzipioetako bat nekazaritza babestu beharreko sektore berezia izatea da. Azkeneko erreformaren helburuak honako hauek dira: nekazariari laguntzea epe luzerako kalitateko elikagaien hornikuntza bermatzeko, nekazaritza-sektorea jasangarriago bihurtzea eta Europako landa-eremuaren dibertsitateari, tradizioei eta nekazaritzari loturiko jardunbideei eustea<sup>29</sup>.

Nekazaritzak beste sektore batzuen aldean jasotzen duen babes berezi horren oinarrian hainbat arrazoi daude, zer tokitatik begiratzen den:

- Ikuspegi ekonomizistaren arabera, nekazaritza babestu egin behar da ez duelako beste sektoreak besteko irabaziak eragiteko aukerarik<sup>30</sup>:

29 [http://ec.europa.eu/agriculture/cap-for-our-roots/index\\_es.htm](http://ec.europa.eu/agriculture/cap-for-our-roots/index_es.htm)

30 Romero, José J. (2002), *Los efectos de la Política Agraria Europea; un análisis crítico*, ETEA, Bilbao: Oxfam Intermon, 43–45.

## Nola banatzen dira laguntzak?



- Turgoten legearen arabera, nekazaritzaren etekinak beherakorra dira, ekoizkortasuna handitu egiten baita teknologian inbertituta, baina neurri batera arte, ez da mugagabea.
- Engelen Legearen arabera, errenta hazten den heinean, hazi egiten da elikadurako gastua, baina ez mugarik gabe; elikagaien ekoizpenak ezin du jardun hazkunde infinituaren logikarekin, beste sektore batzuk bezala.
- Cain eta Abelen legearen arabera, zereala lantzen dutenei ondo badoakie, abeltzainei gaizki joango zaie eta, beraz, bietako batek beti beharko du babes sistema bere horretan jarrai dezan.
- Ikuspegi politikotik, agintariek bi premia ikusten zituzten Bigarren Mundu Gerraren ondoren:
  - Landa-eremuko biztanleen botoa irabazi behar zuten. Hala ere, urteak igaro ahala, landa-eremuko botoaren eragiteko gaitasuna txikiagoa da; izan ere, nekazarien kopurua txikitu egin da eta nekazaritzari dagokion BPGren proportzioa ere bai.
  - Europako gosea eta landa-eremuaren hondamendiak nekazaritza babestek garrantzia hartzea eragin zuen, beharrian horiei erantzun ahal izateko.
- Elikadura-burujabetzaren aldeko mugimenduaren arabera:
  - Elikagaien ekoizpena ondasun komuna da, eta ondorio sozial eta ingurumenekoak ditu jendarte osoarentzat. Nekazarien alde egitea elikagai osasungarriak eta gertukoak ekoizterik izan dezan ingurumena eta jendarte osoaren osasuna zaintzeko modu bat da.

Lehenengo sektorea zergatik babestu eta lagundu behar den dauden ikuspuntuaren artean aldeak egon arren, jendartean duen garrantzia eta berezitasuna begi bistakoa da. Ekoizpenaren eta landa-eremuaren babes nola gauzatu eztabaidetako gakoa izan da NPB sortu zenetik –1957ren hasieran– izan diren negoziazio eta erreformen baitan, aurrerago beste atal batean ikusiko dugun bezala.

NPBren barruan, urteetan zehar, babeserako hiru mekanismo nagusi erabili izan dira: 1) Prezioen babes; 2) Kanpoko babes; eta 3) Zuzeneko laguntzak. Urte hauetan izandako joera NPBren gastua murriztea izan da, Europako aurrekontuan zuen garrantzi erlatiboa galtzen joan baita. Babesteko moduei dagokienez, prezioak arautzeko eta kanpoko babes esportaziorako diru-laguntzen bidez babesteko ekintak hasierako garrantzia galdu dute eta, urteak joan ahala, handitu egin da landa-garapenerako zuzeneko laguntzen eta funtsen politikako inbertsioa.

Horrela, beraz, gaur egun NPBk bi finantzaketa-habe ditu, batik bat. Oro har, lehenengoa, ekoizleentzako zuzeneko laguntzak dira; borondatezko eta nahitaezko neurrien bidez eta merkatu komuna koordinatzeko eta sustatzeko diseinaturiko neurriekin batera. Bigarrena, landa-garapenera bideratutako funtsak dira; lurralde garapenean, lehiakortasuna eta kudeaketa jasangarria bermatzeko. Bigarren habea kide diren estatuak elkarrekin finantzatzeko dute erakunde nazional edo azpi-nazionalen bidez.

Europako nekazaritza eta abeltzaintza eman zaion babes berezia ez da merkea izan. 1979an, NPB Europako erkidegoaren aurrekontuaren<sup>31</sup> % 72 zen eta, EBko aurrekontuan duen pisu erlatiboa txikitu egin den arren, 2018an, Batasunaren aurrekontuaren % 37,6 izan zen (58.100 milioi euro)<sup>32</sup>. Kide diren estatu guztiek ez dute NPBren diru kopurua jasotzen, ez eta laguntza-mekanismo bakoitzeko ratio berberak ere. EBko kide diren estatu guztietatik, Espainia bigarren funts-hartzaile handiena da, Frantziaren atzetik. 2017an, 5.063.917.000 euro inguru jaso zituen Espainiak zuzeneko laguntzetan; 729.603 onuradunen artean banatzeko. Laguntza horien banaketa erabat desorekatua edo ezberdina da. Onuradun txikien % 71,37k funtsen % 14,94 partekatzen dute urtean 5.000 euro baino gutxiagoko zenbatekotan.

31 Europako Batzordearen datuak Romeron (2002), 42.

32 <http://www.europarl.europa.eu/factsheets/es/sheet/106/la-financiacion-de-la-pac>

Onuradunik handienen % 1,88k aldiz, laguntzen % 26,18 partekatzen dute, urtean 50.000 euro baino gehiagoko zenbatekotan<sup>33</sup>.

Euskadin, 2009ko nekazaritzako eroldaren arabera, gazteak (40 urtera arte) lehenengo sektorearen % 4,6 ziren, eta NPBren zuzeneko laguntzen % 4,3 jasotzen zuten<sup>34</sup>. Hala ere, EHNE Bizkaiak urteak daramatza salatzen estatistika horiek errealitatearen alderdi garrantzitsu bat ezkututzen dutela. 2013an azaldu zuten diru-laguntzen % 66 euren jarduera profesionala nekazaritza ez den onuradunen eskuetara iristen dela. Urte horretan, “Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan, diru-laguntzen hartzaileak 11.161 pertsona ziren, baina 3.400 baserritar baino ez dira egun osoko jardun profesional gisa nekazaritza dutenak. Nafarroan, 6.500 profesional ziren guztira, eta diru-laguntzak 15.446 onuradunek jaso zituzten”.<sup>35</sup> Are txarrago, “Espainiako 200 familia dirudunenen artetik, gutxienez 60 familiak 1,1 milioi euro jaso dituzte [guztira aldi horretan] 2008az geroztik diru-laguntzetan sozietate bakoitzeko; diru-laguntza horiek eskatu zituzten Espainiako 900.000 nekazarietako bakoitzak, aldiz, 44.000 euro”.<sup>36</sup>

Generoari arreta jarritz gero, emakumeei bereziki zuzenduriko diru-laguntzek eragin dezakete sektorean egonkortasuna edukitzeko; eta arrazoia da, ustiaketa kolektiboetan edo emakume bat dagoen bikote ustiatuegietan, emakumeak aipatzen direla titular gisa diru-laguntzak jasotzeko. Hala ere, emakumeak NPBren diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsona fisikoen % 32 baino ez dira, eta diru-laguntzen zenbateko osoaren % 23 baino ez dute jasotzen<sup>37</sup>.

33 European Agricultural Guarantee Fund (2017), “Indicative figures on the distribution of aid, by size-class of aid, received in the context of direct aid paid to the producers according to council regulation (EC) No 1307/2013” (Brussels: European Commission, financial year 2017), [https://ec.europa.eu/agriculture/sites/agriculture/files/cap-funding/beneficiaries/direct-aid/pdf/direct-aid-indicative-figures-2017\\_en.pdf](https://ec.europa.eu/agriculture/sites/agriculture/files/cap-funding/beneficiaries/direct-aid/pdf/direct-aid-indicative-figures-2017_en.pdf)

34 De Salinas y Ocio (2016), 8.

35 Basterra, Juanjo (2018), “Dos de cada tres perceptores de ayudas de la PAC no son agricultores,” *naiz*, 2013ko martxoaren 28a, saila: Ekonomia, <https://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20130328/dos-de-cada-tres-perceptores-de-ayudas-de-la-pac-no-son-agricultores>

36 Sánchez, Raúl (2016) “La UE reparte 250 millones en subvenciones agrícolas entre 60 ricos españoles,” *Eldiario.es*, 2016ko martxoaren 28a, [https://www.eldiario.es/economia/espanolas-recebido-millones-subvenciones-agrarias\\_0\\_499400610.html](https://www.eldiario.es/economia/espanolas-recebido-millones-subvenciones-agrarias_0_499400610.html)

37 Gonzalo Aranoa eta Urretabizkaia (2012), 35.

Hala ere, banaketa ez-bidezkoa izanik ere, iristen diren diru-laguntzak funtsezkoak dira. Estatuan, aitortutako nekazaritzako errentaren % 25 eta % 28 artean, batez beste, NPBtik dator<sup>38</sup>. Euskadin, mendekotasuna txikiagoa da; nekazaritzako errentaren % 18,2 dator NPBtik<sup>39</sup>. Aurretik esan dugun bezala, oro har, nekazaritzako soldatak txikiagoak direla kontuan hartuta, diru-laguntza horiek berebizikoak dira nekazari eta abeltzain familia askorentzat.

*“NPBregatik ez balitz... laguntzarik gabe, akabo. Ez eta zuzeneko salmenta eginda ere. Azkenean, ezartzen diren prezioak ohiko nekazaritzak zehazten dituenak dira eta. Eta guk ez dugu ohikoan lan egiten. Ez dugu asko irabazten, baina laguntzarik gabe ekonomikoki euste... ezinezkoa da.”*  
Gizon abeltzaina

## NPBren hainbat erreformaren berrikuspena



NPB aldian-aldian berritu da sortu zenetik hona. Hala ere, zenbait erreforma bereziki adierazgarriak izan dira, eta politika horren orientazioan aldaketa-prozesuak eragin dituzte. Bereziki garrantzitsuak izan diren prozesu horietako hiru azpimarra ditzakegu:

### 1. MERKATUEN ERREGULAZIOTIK ASKAPENERA: NPBK BAT EGITEN DU MERKATARITZA ASKEKO ITUNEKIN

Gerra urte luzeen ondoren, NPB hasi zenean, ardura nagusia elikagaien ekoizpena handitzea zen. “Mansholf plana” izenekoak indartuta, aldi horretan zegoen ikuspegia nekazaritza modernizatzea (aldaketa horretarako prestatuta ez zeuden nekazariak utz zezaten sustatuz)<sup>40</sup>

38 Maté, Vidal (2017) “Nueva guerra por el fondo agrario,” *El País*, 2017ko apirilaren 23a, Saila: Ekonomia, [https://elpais.com/economia/2017/04/actualidad/1492772790\\_483413.html](https://elpais.com/economia/2017/04/actualidad/1492772790_483413.html)

39 De Salinas y Ocio (2016), 22.

40 Sanz Pérez, Rubén (2017), “La Política Agrícola Común (PAC)”, Gradu amaierako lana, Valladolideko Unibertsitatea Gizarte Zientzia, Zientzia Juridiko eta Komunikazio Zientzien fakultatea 9, <https://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/27971/1/TFG-N.806.pdf>.

eta nekazaritzako etekinak handitzea zen. Helburu horiek lortu ziren, eta halako arrakasta eduki zuen, ezen gainproduktzio arazoak sortu baitziren. 70.eko urteetan eta 80.eko urteen hasieran NPBren gas-tuek gora egin zuten nabarmen, eta gainproduktzioak gurin-mendi eta esne-laku ospetsuak eragin zituen. Inflexio puntua izan zen, eta hortik aurrera kontrol-mekanismoak ezarri ziren, 1984an ezarri ziren esne-kuotak<sup>41</sup>, kasu. 1992ko MacSharry Erreformatik merkaturaren liberalizazio-prozesua hasi zuen, eta diru-laguntzak erregulatzeko enfasiaren aurrean, zuzeneko diru-laguntzetarako mekanismoak txertatu zituzten. Ez da kasualitatea Merkataritzako eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusiaren (GATT) negoziatioekin bat etortzea; hortik etorri zen Merkataritzako Mundu Antolakundea (MMA). Testuinguru hartan Europak presio handia jasaten zuen neurri protekzionistengatik, eta MacSharry erreformatiko aldaketak une hartan nazioarteak merkaturak liberalizatzeko egindako presioaren ondorioa dira, eta GATT<sup>42</sup> akordioa ahalbidetu zuen.

MMAk Europako nekazaritzaren liberalizazioan sakontzea espero zuen. Horrekin batera, EB za-

**“Frantziara eraman gintuzten ustiategi handi batzuk ikustera; bidaia guztiak diruz lagunduak ziren. Pabilioi bat, korta bat eta behiak jaisteko leku bat egitera animatu gintuzten. Eta horretan inbertitzera ausartu nintzen, diru-laguntzekin. Baina guztiz damutu zait. Pabilioia egiteko, ordurako ez zuten ez itzultzekotan ematen, kredituan baizik. Kreditua lortzeko arazorik ez zegoen, Aldundiaren eta bankuaren artean hitzarmena zuten gainera. Gerora, guztiz hondoratu gaituena duela 10 urteko krisia izan zen. Ni lur jota utzi ninduen. Badira laupabost urte artzaintzan jardun behar genuela eta daukagun lurrari egokitzen hasi behar genuela esaten hasi zirenetik. Baina inbertsioa eginda zegoen, eta bankua gure gainean.”**  
Gizon abeltzaina

baltzeak arrisku bat zeukan: Europako merkaturak, agian, ezin izango zuela kide berrien nekazaritzako ekoizpen guztiak barneratu. Europako gainproduktzioa saldu ahal izateko munduko beste leku batzuetan merkaturak zabaltzeko interes horrekin, merkataritzaren<sup>43</sup> esanahia alda zezaketen ekoizpena arautzeko mekanismoak desagerrarazteko (edo malgutzeko, murrizteko) arrazoiak handitu egin ziren eta horrela hasi zen merkaturaren liberazioa.

Fischler erreforma, 2003koa, izan zen NPBren historiako aldaketarik azpimarragarrienetako bat. Desakoplamendua izenekoarekin, laguntzak jada ez ziren jasotzen ekoizten denaren arabera, eta ordainketa bakarrean jasotzen ziren, hektarea bakoitzeko aktibatzen diren eskubide batzuen arabera. Eskubide mota desberdinak daude (normalak, erretirorakoak, erreserba nazionala, etab.) eta diru-laguntza zenbatekoa izango den erabakitzeak kalkulak kasuen arabera dira<sup>44</sup>. Eskubide historikoak esatean desakoplamenduaren ondorioz lortu ziren eskubideak aipatzen dira. Nekazaritzako lur asko eskubide horiekin saltzen da, baina bada eskubideen merkatu bat ere partikularren artean erosteko. Xehetasun asko daude eta sistema konplexua da, baina erreforma horren ondorio nagusia da diru-laguntzak ez direla ekoizten denaren arabera, baizik eta lur kopuruaren arabera (ekoizteko erabiltzen diren ala ez kontuan hartu gabe).

Euskadin, liberalizazio eta desakoplamendu urteek (2003 urtetik gaur egunera) hainbat gauza sustatu dituzte; alde batetik, lehenengo sektorean lur metaketa-prozesua; hau da, pertsona gutxiagok kontrolatzen dituzte lur-hedadura handiagoak eta, beste alde batetik, ekoizpen eskala eta eredu gero eta handiagoa, Europako beste leku batzuetan gertatzen den bezala. Nekazaritzan diharduen pertsona kopurua jaisten doan heinean, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiaren batez besteko tamaina handitu egin da. 1999 eta 2009ko nekazaritzako errolden arteko hamarkada horretan, esaterako, Euskadiko ustiategietan erabilitako nekazaritza-azaleraren (SAU) batez bes-

41 Esne-kuoten bidez, ekoizleek industriari eta/edo zuzeneko salmenta bidez eta isunik ordaindu gabe sal dezaketen behi-esnearen ekoizpenerako gehieneko atalasea (kilogramo bakoitzeko) finkatzen da. Kuotak ondasun besterengarria dira; saldu eta erosi egin daitezke.

42 Swinbank, Alan (2005) “The evolving CAP, pressures for reform, and implications for trade policy,” *Trade policy reform and agriculture: prospects, strategies, implications*, Australian Agricultural and Resource Economics Society, Coffs Harbour, 5.

43 Josling, Tim (2008), “External influences on CAP reforms: an historical perspective,” en *The perfect storm: the political economy of the Fischler reforms of the Common Agricultural Policy*, ed. Johan F. M. Swinnen, Brussels: Centre for European Policy Studies, 69.

44 <http://www.euskadi.eus/informacion/preguntas-mas-frecuentes/web01-a3nekaor/es/#3>

tekoa % 18 handitu zen<sup>45</sup>. Fenomeno hori bereziki nabarmena izan da abeltzaintzan; izan ere, aldi horretan bertan esne-behien ustiategiaren kopurua % 68,5 jaitsi zen; hala ere, ustiategi bakoitzeko esne-behien batez besteko kopurua 1999ko 13tik 2009ko 26ra aldatu da (+%100)<sup>46</sup>.

Diru-laguntzak hektarea kopuruari lotzea pizgarria da jabeentzat, eta horrela azalera horiek mantendu behar dituzte NPBren zuzeneko diru-laguntzak edukitzeko (bereziki erakundeek eurek bultzatutako inbertsioen ondorioz zor handia dutenek). Horren ondorioz, instalazio berriak ezartzeko erabilgarri dagoen lurra mugatua da. Informalitatea eta azpierrentamendua ohikoak dira, bereziki abeltzaintzan, lurrak behar baitira animaliek bazkatze-ko eta mindak isurtzeko. Ohikoa da nekazaritzako ustiategi bakoitzak lurra eskuratzeko estrategia osatzen duten akordio-nahaspila izatea: titulu pribatuak, mendiko lur publikoa eta auzotarren arteko ahozko akordioak ere bai (batzuetan, jabeak doan uzten ditu lurrak nekazaritzarako edo abeltzaintzarako, eta lur horiei lotutako diru-laguntzak berak jasotzen ditu; beste batzuetan, alokairua kobratzen dute, eta erabiltzaileak diru-laguntzak jaso ditzake; edo faktore horien bestelako konbinazioen bat ere bai). Lurjabeentzat hainbat aukera eskaintzen dituzte NPBren diru-laguntzek funts horiek baliatze-ko, akordio informalekin bidez, eta batzuetan, legez kanpoko eta konplexuen bidez.

**“Abeltzainen sektorea banatuta dago berez. Eta lurraren gaineko tentsioengatik. Jarleku batean eserita eta errenta jasotzen ari den jendea.”**  
Gizon abeltzaina

## 2. NEKAZARITZATIK LANDA-GARAPENERA


1992 urtean, Rio de Janeiroko (Brasil) Lurraren gaineko goi-bileran, ingurumenaren gaia eztabaida publikoaren erdigunean jarri zuten. Urteetan ustiategi txikiak modernizatu eta utzi ondoren, hirietarako migrazioak eragin handia zuen landa-eremuko populazioan. Une hartan, MacSharry erreformak landa-garapena deiturikorako orientabi-

45 EUSTAT (2010), “Disminuye el número de explotaciones agrarias en la CA de Euskadi pero estas son de mayor tamaño”, Euskal Estatistika Erakundearen prentsa-oharra, 2010eko irailaren 29a, [http://www.eustat.eus/elementos/ele0006200/Disminuye\\_el\\_numero\\_de\\_explotaciones\\_agrarias\\_en\\_la\\_CA/not0006289\\_c.html](http://www.eustat.eus/elementos/ele0006200/Disminuye_el_numero_de_explotaciones_agrarias_en_la_CA/not0006289_c.html)

46 *Ibidem*

de bat txertatu zuen landa-eremuetako ekonomiak dibertsifikatzeko, eta lehenengo sektoreari gainproduktzioaren aurrean beste aukera bat emateko. Kritiko batzuentzat, Etxezarreta (1994) kasu, landa-garapena kontzeptuaren ulermena bera hiriko ikuspuntu batetik dator, hirietarako migrazioa baina hirietako langabezia areagotu dezakeen konponbide sozial gisa ulertzen duena<sup>47</sup>. Geroago, 1999an, Berlineko itunak Agenda 2000 ezarri zuen, eta NPBren bigarren habea ezarri zen funtsak espezifikoki landa-garapenerako bideratzeko. Bigarren habea horretara bideraturiko funtsen zenbatekoa (ikus landa-garapena beheko 3. taulan) desberdina da kide den Estatu bakoitzean, baina, oro har, funts gehienak lehenengo habera bideratzen dira oraindik.

## 3. irudia. Kide den estatu bakoitzerako NPBren funts proposamena 2021-2027 aldirako, termino izendunetan (mila eurotan)



Iturria: Ramon i Sumoy 2018<sup>48</sup>


Bigarren habea Rio-osteko garaian sortzen ari ziren gizartearekiko eta ingurumenarekiko kezkei leku instituzional bat emateko balio du.

47 Mauleón Gómezek aipatua (1998), 70.

48 Ramon i Sumoy, Richard (2018) “PAC Post-2020” (Power Point, 2018ko ekainaren 4a) [https://www.slideshare.net/RicardRamoniSumoy/pac-post2020presentacin-madrid?from\\_action=save](https://www.slideshare.net/RicardRamoniSumoy/pac-post2020presentacin-madrid?from_action=save)

Hein batean, nekazaritza ekologikoaren gaia bigarren habe horretako kezketako bat bezala hartu da. “Nekazaritzaren ikuspuntutik, nekazaritza politika berriak nekazari eta abeltzain mota baten ardurarik ez hartzeko eta konponbidea bilatzeko beste instantzia batzuen (Egiturazko Funtsak, esaterako) laguntza eskatzeko mekanismo berria da Landa Garapena.”<sup>49</sup> NPBren erreformek gero eta gehiago ahalbidetu dituzte eredu agroindustrialari begirako modernizazioa eta inbertsioa. Ondorioz, NPBren erakunde nagusiek (lehenengo habea kudeatzen dutenek) metodo ekologikoak erabiltzen dituzten ekoizle txikien “ardurarik ez hartzean”, ekoizpen ekologikoari laguntzeko iturri nagusietako bat landa-garapenerako programetarako (LGP) bigarren habeko funtsak izan dira.

#### 4. irudia. Kide den Estatu bakoitzaren arabera, nekazaritza ekologikora bideraturiko 2014-2020 Landa Garapenerako Programen (LGP) gastuen ehunekoak



Iturria: Pe'er 2017<sup>50</sup>

49 Mauleón Gómezek aipatua (1998), 70.

50 Pe'er, Guy et al. (2017), “An evidence-based fitness-check assessment”, commissioned by Stichting BirdLife Europe and European Environmental Bureau (EEB), Leipzig: German Centre for Integrative Biodiversity Research (iDiv), 133, <https://www.greens-efa.eu/files/doc/docs/f9a6e-0b649a9a238d21f6620886dd014.pdf>

Hala ere, landa-garapenaren barruko faktore guztiak begiratzean (turismoa edo kontserbazioa, kasu), ikus daiteke nekazaritza ekologikoa ere ez dela, nahitaez, LGPen onuraduna. Eztabaida ez dago argi; lehenengo sektoreko diru-sarreraren dibertsifikazioan jarritako enfasia nekazariaren familiek pairatu dituzten zailtasunen erantzuna diren, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena osatzeko beste sektore batzuetan lan-aukerak eskainiz, edo, aitzitik, dibertsifikazioa horrenbeste sustatzea pizgarri izan ote den lehenengo sektoreko jardueretan gero eta denbora gutxiago emateko. Bat izan ala bestea izan, INEren datuen arabera, 2003an, EAEko nekazaritzako ustategietan jardunaldi osoan lan egiten duten pertsonen kopurua 6.604koa zen; 2016an, berriz, 2.629ra jaitsia zen.

#### 3. ZENTRALIZAZIOTIK BIRNAZIONALIZAZIORA

NPB sortu zenetik, printzipioetako bat merkatuaren batasuna izan da, kide diren Estatu guztientzat arau berberekin. Hau da, ezin zen nekazaritzako politika nazionalizatu<sup>51</sup>. Hala ere, landa-garapenerako funtsak kudeatzeko bigarren habea sartu izana, kide den Estatu bakoitzaren kofinantzaketarekin batera dator, beraz, horren inplementazioa Europaren nahiz Estatu bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera izango da. Baliabide gutxiago dituzten estatueterako, bigarren euskarriarekin kofinantzaketara sartu izanaren ondorioz, NPBren hasierako batasun-printzipio harekin gainditu nahi izan ziren desberdintasun horiek nabarmenagoak dira.

2020-osteko NPBren erreforma berrirako proposamenean plan estrategikoa sartu dira. Mekanismo horren arabera, Estatu bakoitzak bere plan estrategikoa osatu behar du NPBren 9 helburu komunak betetzeko. Askoren ustez, estatu bakoitzaren esku uztea NPB nola ezarri eta egituratu nahi duen aukeratzea politika komunaren birnazionalizazioa da: “kartara” egindako NPB<sup>52</sup>. Eta hori NPBren oinarrietako baten aurkakoa izango litzateke; kudeaketaren batasuna eta

51 Romero (2002), 48.

52 Calleja, Marisol (2017), “Una PAC a la carta a partir de 2020,” *Diario de Valladolid*, 2017ko azaroaren 30a, [http://www.diariodevalladolid.es/noticias/castillayleon/pac-carta-partir-2020\\_105252.html](http://www.diariodevalladolid.es/noticias/castillayleon/pac-carta-partir-2020_105252.html); Jaramillo, Jorge (2018), “Tras medio siglo de historia, llega la primera PAC a la carta,” *Agricultura*, 2018ko martxoaren 5a, Saila: Economía, [http://www.revistaagricultura.com/economia/economia/tras-medio-siglo-de-historia--llega-la-primera-pac-a-la-carta\\_9618\\_39\\_11976\\_0\\_1\\_in.html](http://www.revistaagricultura.com/economia/economia/tras-medio-siglo-de-historia--llega-la-primera-pac-a-la-carta_9618_39_11976_0_1_in.html)



funts komun baten bidez finantzaturako politika zentralizatu baten bidezko birbanaketa.

Etorkizuneko NPBen bederatzi helburuak honako hauek dira:

1. Nekazarietzako bidezko errenta bermatzea
2. Lehiakortasuna handitzea
3. Elika-kateko boterea berrerekatzea
4. Klima-aldaketaren aurka eragitea
5. Ingurumena zaintzea
6. Paisaia eta biodibertsitatea jagotea
7. Belaunaldien txandaketari laguntzea
8. Landa-eremuak dinamiko mantentzea
9. Elikagaien eta osasunaren kalitatea babestea

## 5. irudia. NPB berriaren 9 helburuak



### 3. SEKZIOA

# NPB berriaren plan estrategikoak

## Nekazaritzan belaunaldien txandaketa gertatzeko aukera bat

### Plan Estrategikoak



La Via Campesinaren Europako Koordinakundeak (ECVC<sup>53</sup>) proposatzen du, dauden, guxienez, 27 estatuko planen arteko gorabeheren aurrean, funtsezkoa izango dela Europako Batzordeak marko komun bat ezartzeko lana<sup>54</sup>. Horren arriskuak ukatu gabe, deszentralizazio horrek ateak ere zabaltzen ditu nekazaritza-politikaren gaineko tokiko eta eskualdeko kontrol handiagoa eragiteko. Jokaleku berri honetan, kontuan hartu beharreko figura berria da proposamenean “kudeaketa-agintaritza” gisa aipatzen dutena; plan estrategikoaren kudeaketaren eta gauzatzearen arduraduna, alegia<sup>55</sup>. Europako Batzordearen proposamenak bere baitan hartzen du “NPBren plan estrategikoaren parte bat eskualdearen esku uzteko aukera, marko nazionalari jarraituz”, eta prozesu horretan laguntzeko, “NPBren plan estrategikoetan

53 ECVC Via Campesinaren Europako eskualdeko kidea da; “gaur egun, Europako 17 herrialdeetan, nekazariak, landa-eremuko eta nekazaritzako langileek osaturiko 26 erakunde biltzen dira bertan.” <https://www.eurovia.org/es/sobre-ecvc/>

54 ECVC (2018), “The CAP: communication, financial framework, markets directive and European Commission draft legislative proposal; ECVC position”, European Coordination of la Via Campesina, 2018ko maiatza, 2.

55 Europako Batzordea (2018), “Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudi Proposamena, Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) baitan, kide diren Estatuak egin behar dituzten Plan Estrategikoetarako, Nekazaritzako Europako Nekazaritza Funtza (FEAGA) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (FEADER) pentzudan finantzatutako laguntzari dagozkion arauak ezartzen dituena eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 zerbakidun Araudia (UE) indargabetzen duena”, 33.

zehazteko zer harreman mota izan behar duten nazioko eta eskualdeetako esku-hartzeak.”<sup>56</sup> Espainiako estatuak erabaki du lehenengo habeko neurriak Nekazaritza Ministerioak zehaztuko dituela estatuan, eta bigarren habeko neurriak, berriz, autonomiek zehaztuko dituztela. Horiek guztiak plan estrategiko bakarrean txertatuko dira

Oro har, NPBren bederatzi helburuak betetzeko neurri zehatzak definitu behar ditu plan estrategikoak. Nekazari gazteak erakartzeko helburuari dagokionez, esaterako, proposamenaren aurretiazko kontsiderazioen 43. atalean honako hau jasotzen da: “Kide diren estatuak ikuspegi estrategikoa eman eta esku-hartze argi eta koherenteak identifikatu behar dituzte belaunaldien txandaketarako [...] Xede horretarako, kide diren estatuak NPBrako plan estrategikoetan lehentasuneko baldintzak ezar ditzakete sektorerari iritsi berri diren nekazari gazteentzako finantza-tresnetarako”.<sup>57</sup>

Lurraldearen ikuspuntutik, plan estrategikoek Europar Batasunean dagoen tentsio sakona islatzen dute: alde batetik, zentralizazioa, blokeko herrialde eta eskualdeen artean baliabideak banatzeko gaitasun handiagoa eskaintzen duena eta, bestetik, bernazionalizazioa, kudeaketa burujabeagorako aukera eta tokian tokiko testuinguruaren beharrezanetara gehiago egokitzen den nekazaritza politika definitzea eskaintzen duena. Edozein kasutan, aukera politiko hau benetan baliatu ahal izateko, estrategia eraginkorra garatzeko eta aliantzak identifikatzeko, belaunaldien txandaketa bermatuko duen ekoizpen eredu babestuko duten proposamenak diseinatzeko prozesu kolektibo bat behar da. Estatuan hasiak dira kontsulta prozesuarekin, eta hor, planean sartuko diren etorkizuneko neurriei buruzko eztabaidentan parte hartzen ari dira nekazaritzako sindikatuak, COAGen bitartez. Hala ere, dokumentu hau idazten ari garen unera arte behinik behin, bigarren habearen inguruan lan egiteko antzeko prozesurik ez du hasi Eusko Jaurlaritzak.

Aurretik azaldu dugun bezala, NPBk porrot egin duen eredu baten alde egin du, eta hein handi batean, erreforma horretan zehaztu diren 9 helburuen kontra doa. Baina plan estrategikoak etorkizuneko NPBn

56 *Ibidem*, 32.

57 *Ibidem*, 29.

eragiteko aukera bat dira, hura aldatzeko eta behar dugun eredu agroekologikoa eraiki dezaketan edo eraikitzen ari diren baserritarrei laguntzeko. Sekzio horrek eztabaida zabaldu nahi du, zeregin kolektibo horretan aurrera egiteko kontuan hartu beharreko zenbait gako eskainiz. Ikerketa honen ardatz nagusia belaunaldien arteko txandaketa denez, faktorerik garrantzitsuenetan zentratuko gara 7. helburua lortzeko: belaunaldien txandaketa babestea. Hala ere, bederatzi helburuak elkarri lotuta daude, eta denek baldintzatzen dute nekazaritzaren etorkizuna eta, ondorioz, belaunaldien arteko txandaketa. Begirada integral horrekin, sekzio honetan zenbait ideia eskaini nahi ditugu NPBren 9 helburuen inguruan tokian tokiko premiak egituratu eta Euskal Herriko nekazarien belaunaldi berriei lagunduko dien plan estrategikoa gauzatzen laguntzeko.

Aldi berean, begi bistakoa da NPBren bidez eraldaketa bultzatzeak muga asko dituela, eta interes asko daude erreforma horretatik espero daitezkeen aldaketak eragozten dituztenak. Beraz, funtsezkoa da plan estrategikoei buruzko lana NPB baino urrunago doan ikuspegi politiko batekin. Hori dela eta, ikuspegi hori elikadura-burujabetzatik taxutzeko jarraibideak jaso ditugu 4. sekzioan.

## Kontuan hartu beharreko zenbait gako, belaunaldi-txandaketa sustatzeko



### Prekarizazioa geldiaraztea

(1, 6, 7, 8 helburuak)

#### *Nekazaritzako enplegu gehiago eta hobek*

Nekazariei bidezko errenta bermatzea da NPBren 9 helburuetako bat, eta zuzenean eragiten dio horrek belaunaldien ordezkapenari. Hala ere, historian zehar, NPBk ez du arrakastarik izan helburu hori bermatzean. Izan ere, Europar Parlamentuaren ikerketa batean onartzen da lehenengo habeko diru-laguntzek kontrako eragina izan dutela, ekoizpen-ereduaren intentsifikazioa ekarri dutelako, eta horrek lan-

da-eremuetan apurka enplegua galtzea bultzatzen du. Aldi berean, bigarren habeko landa-garapenerako laguntzek nekazaritza ez den beste sektore batzuetan enplegua sortzen lagundu dute, turismoan, kasu<sup>58</sup>. Eta gainera, laguntzetan inbertitu izan den sektoreetan galdu da enplegu gehien<sup>59</sup>.

NPBk Euskadiko lehenengo sektoreko laneko harremanetan ere eragin du. Euskadi, historian zehar, familiako nekazaritzan oinarritutako nekazaritza egituragatik ezaguna den arren –kontraturiko lana gutxi erabilia–, azkeneko datuen arabera, hori ere aldatu egin dela esan dezakegu. Egia da nekazaritzako ustiategien eta sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua jaisten ari dela, oro har, baina familiakoa ez den lana egiten duten pertsonen kopurua handitu egin da: % 4, 2.678tik, 2003an, 2.786ra, 2016an. Aldi berean, sektorean lan egiten duten senitarteko ez-titularren kopuruak behea jo zuen, 24.999tik, 2003an, 9.050era, 2016an<sup>60</sup>. Familiako lan horren barruan, jarduerarekin jarraitzeko aukera duen jende gaztearen kopurua are txikiagoa da. 2005ean, 40 urtetik beherako pertsonak familiako lanean ari zirenen % 27 baino ez ziren. Eta urtean 100 egun baino gehiago lan egin zuten senitarteko gazteek, familiako lanaren % 2 baino ez (641 lagun, eta horietatik heren bat emakumeak)<sup>61</sup>.

Nekazaritzako lanaren egitura aldaketa horrek eragin handia izan du Europako hainbat tokitan. Berriki egindako ikerketek agerrarazi dute European lanean ari diren langile eta jornalariak esplotazio handia pai-

58 Schuh, Bernd (2016) "Research for AGRI Committee - The role of the EU's Common Agricultural Policy in creating rural jobs," Policy Department B: structural and cohesion policies, agriculture and rural development, Brussels: European Parliament, [http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/STUD/2016/573418/IPOL\\_STU\(2016\)573418\\_EN.pdf](http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/STUD/2016/573418/IPOL_STU(2016)573418_EN.pdf)

59 Berlinschi, Ruxanda, Kristine Van Herck eta Johan F.M.Swinnen (2011), "Farm Subsidies and Agricultural Employment: The Education Channel," en *Evidence-Based Agricultural and Rural Policy Making: Methodological and Empirical Challenges of Policy Evaluation* (122nd EAAE Seminar, Ancona, 2011), 3–4, [https://www.researchgate.net/publication/254386798\\_Farm\\_Subsidies\\_and\\_Agricultural\\_Employment\\_The\\_Education\\_Channel](https://www.researchgate.net/publication/254386798_Farm_Subsidies_and_Agricultural_Employment_The_Education_Channel)

60 Txosten honen egileak *Espainiako Estatistika Erakundearen (INE)* datuekin egindako kalkulua: Nekazaritzako ustiategien egiturari buruzko inkesta (2003, 2005, 2007, 2013 eta 2016)

61 Cruz Alberdi Collantes (2005), 10

ratzen dutela, erdi-esklabotzako egoerak ere bai, batzuetan<sup>62</sup>. Emakumeak eta pertsona migratzaileak dira, bereziki, lehenengo sektoreko esplotazio hori paira dezakeen kolektibo kaltebera<sup>63</sup>.

Euskadiko nekazaritzako ustiatagietan kontrataturiko pertsonak, guztira, Europako beste nekazaritza-guneetakoak baino askoz gutxiago dira oraindik ere. Hala eta guztiz ere, berebizikoa da nekazaritzako lana prekarizatzeko joera geldiaraztea eta diru-laguntzak bidezko errenta bermatu eta enplegu duina sortuko duen nekazaritza-eredu baterantz bideratzea. Nekazaritzako esplotazio txiki eta agroekologikoen enplegu gehiago sortu ohi dute, mekanizazioa txikiagoa delako. Gainera, biodibertsitate handiagoa izaten dute, eta horrek 6. helburua<sup>64</sup>. betetzen laguntzen du. Lan errentagarriagoak<sup>65</sup> ere izan daitezke eta enplegu duina izan, asebetegarriak eta harro egoteko<sup>66</sup> modukoak. ECVCK proposatzen du NPBn baldintzapen sozial bat ezartzea "nekazaritzako lanaren balioa aintzat hartzeko eta langileen eskubideen eta duintasunagatikiko begirunea ezartzeko, haien estatusa zeinahi dela (nekazaria, enplegatua, urte-sasoikoa edo

**“Gogorra da autonomia izatea. Arazo guztiak zuretzat dira. Baina, beno, gustuko dut, ez nuke aldatuko.”**  
Gizon nekazaria

62 Gangmasters & Labour Abuse Authority (2018). *The nature and scale of labour exploitation across all sectors within the United Kingdom*. [Online]. Hemen eskuragarri: <http://www.gla.gov.uk/media/3537/external-nature-and-scale-of-labour-exploitation-report-final-version-may-2018.pdf> [2019ko otsailaren 6an kontsultatua]; Clark, Nick (2013). Detecting and tackling forced labour in Europe. [Online]. Hemen eskuragarri: <https://www.jrf.org.uk/report/detecting-and-tackling-forced-labour-europe> [2019ko otsailaren 6an kontsultatua]; The Local (2016). Spain's salad growers demand end to exploitation. [Online]. Hemen eskuragarri: <https://www.thelocal.es/20160217/spains-salad-growers-exploitation> [2019ko otsailaren 6an kontsultatua]; Hervey, Ginger (2018). 'Modern-day slavery' on the rise in Europe: report. [Online]. Hemen eskuragarri: <https://www.politico.eu/article/labor-trafficking-exploitation-modern-day-slavery-on-the-rise-in-europe-report/> [2019ko otsailaren 6an kontsultatua].

63 Directorate General for Internal Policies (2017). *The vulnerability to exploitation of women migrant workers in agriculture in the EU: the need for a human rights and gender based approach*. Brussels: European Parliament.

64 Matthews, Alan (2017), "The CAP and agricultural employment | CAP reform," *CAP Reform*. *Eu* (blog), 2017ko martxoaren 18a, <http://capreform.eu/the-cap-and-agricultural-employment/>

65 FAO (2018), "FAO's work on agroecology; a pathway to achieving the SDGs", Rome: Food and Agriculture Organization, <http://www.fao.org/3/I9021EN/i9021en.pdf>

66 IPES-Food (2018), "Breaking away from industrial food and farming systems: seven case studies of agroecological transition"

iraunkorra). Nekazariei, agronegozioen enpresei edo ekoizleen erakundeei ordainduriko laguntza orok langileen eskubideei eta harrerari buruzko hainbat betekizun komun betetzearen mende egon behar du (lanaren nazioarteko hitzarmenei dagokienez)<sup>67</sup>. Horrela, langileen eskubideen errespetuak bidezko errenta bermatzeko 1. helburua betetzen laguntzen du, baina horrez gain, landa-eremuak dinamiko (8. helburua), esplotaziorik eta eskubideen urraketarik gabe mantentzen laguntzen du.

Lehenengo sekzioan ikusi dugun bezala, belaunaldien txandaketaren argazki horretan subjektu nagusia gizona agertzen da oraindik: gizon zuria eta nekazaritzako tradizio baten oinordekoa. Hala ere, hiri-eremutik etorri berriek eta emakumeek eta pertsona migratzaileek gero eta protagonismo handiagoa dute sektorean. Emakumeen kasuan, ikusi dugu egunerokoan lan-karga hirukoitzari egin behar diotela aurre. Funtsezkoa da belaunaldien txandaketa sustatu nahi duten politika publiko horiek pertsona horiek sektorean txertatzen ari diren energia guztia nekazaritzako etorkizuneko belaunaldietarantz bideratzeko beharrian espezifikotara bideratzea.

Alternatiba gisa, elikadura-buru-jabetzak eta agroekologiak autonomia lehenesten dute, baina horrek erantzukizun handia dakar. Denboraren % 100 eskatzen duen lan-jarduna edukitzea ez da oso bideragarria zaintzaren lana agerian jartzen badugu.

Euskadiko lehenengo sektorean nekazaritzako jarduera antolatzeko modu kolektiboak sortzen ari dira, familiarekin eta aisialdiarekin bateratu ahal izateko eta taldeko dinamikak kudeatzeko; horrela, autonomiari eusteko aukera bat eskaintzeko, erantzukizunak partekatu, oporrak hartu eta nekazaritzako lana eta etxeko zaintza bateratzea.

**“Amatasuna dela eta, erabaki dugu lan-jarduna aldatu eta antolatu egin behar dugula, beste edozein lanetan bezala... Haurrak zaindu behar ditugu, eta kasu egin. [...] Hasieran errudun sentitzen nintzen, baina jendeak honetako ulertu du zaintzak zer garrantzi duen.”**  
Emakume abeltzaina

67 ECVK (2018), "ECVC analysis of the proposed regulation for the CAP 2012-2027 reform and the strategic plans", 5.

Eta, azkenik, lehenengo sektorean diharduten pertsonak, beste edo-nork bezala, aukera kultural eta sozialak eduki nahi dituzte aisialdia bizi diren eta lan egiten duten lekuan emateko. Landa-eremua biztanlegabetzen ari den testuinguru batean, nekazaritzaren kultura herrietan berreskuratu nahi duten proiektuek balio handia dute belaunaldien txandaketa (7. helburua) eta landa-eremu dinamikoak mantentzea (8. helburua) bermatzeko.

*“Sareak, elkarrenganako laguntza, auzolanak, zaintza, taldeko lana eta sortzen diren sinergiak ezinbestekoak dira elikadura burujabetzarako bidean.*

*Bidea elkarrekin egiteko, formazioa behar dugu, hainbat modutan komunikatzen ikasi behar dugu, emozioek nola eragiten dituzten ikertu behar dugu; rolek, maila sozialak eta botereak parte hartzen dugun espazioetan nola funtzionatzen duten. Gure bilera eta batzarretan erabakiak nola hartzen ditugun, gatazkak zergatik pizten diren eta aukeraz nola baliatu.”<sup>68</sup>*

### Erretiro duina

NPBren 1992ko erreforman txertatutako neurrietako bat erretiro arreraturako plan bat izan zen. Plana estatu eta eskualde mailan ezarri zenean, uzteko planak deitzen zitzairen. Plan horien logika zen sektoreko jende nagusiari konpentsazio batekin irteera ematea eta landutako lurraren<sup>69</sup>. azaleraren batez bestekoa handitzea. Euskadin, euskal erakundeek elkarrekin finantzatzen zituzten uzteko planak gobernuak zehazten zuen modernizazio-ildoan etorkizunik ikusten ez zitzairen nekazaritzako ustiatzietarako. Behi-esnearen sektorean, planean parte hartzeko betekizunak ziren urtean 30.000 litro esne baino gutxiago ekoiztea edo jarduerarekin jarraitzeko benetako eragozpenak edukitzea (animalien osasuna, zaharra izatea, ondorengorik eza, etab.). Uzteko plan horien bitartez, abeltzainek esne-kuota saltzen zioten Gobernuari, eta horrek erreserba nazional bati atxikitzen zion. 1994an, esne-ekoizpenerako eskubideen % 18 saldua zen, eta

68 Etxaldeko Emakumeak (2018), 25.

69 Baltas, Nicholas C. (1997), “The restructured CAP and the periphery of the EU,” *Food Policy* 22, no. 4 (1997ko abuztuaren 1a): 342, [https://doi.org/10.1016/S0306-9192\(97\)00018-3](https://doi.org/10.1016/S0306-9192(97)00018-3)

1996rako, esne-kuotaren % 29a Espainiako estatuko erreserba nazionalaren<sup>70</sup>. esku utzia zen. Erreserba nazionaletik ekoizpena handitu nahi zuten abeltzainei banatzen zitzairen inolako kosturik gabe. Bestela esanda, erakunde publikoek ordaindu egin diete ustiatzietatik txikiei jarduera utz dezaten, eta haien kuotak ustiatzietatik handiei<sup>71</sup>. eman dizkiete opari. Erreserbari lagatutako kuotak jasotzeko lehen-tasuna zuten abeltzainen artean inbertsiorako laguntza-planetan parte hartu zutenak zeuden; plan horien bidez, aldundiek, bankuen laguntzarekin, interesak diruz-laguntzen zituzten interes-tasa

**“[esne] kuotak kentzean, gaizki. Oso gaizki. Esnea sobera, prezioak behean. Kuotak erretirorako aseguruak ziren. Erretiratzean, saldu eta erretirorako diru bat eduki zenezake. Kuotak kentzean, amaitu egin zen hori.”**  
Gizon abeltzaina

baxuko maileguak eskatu ahal izateko. Kuota gehiago metatzea zor mailarik handienari aurre egiteko modu bat izan zen. Esne-kuota erretiro-plan moduko bat bilakatu zen, nekazaritzako pentsio hain baxuak osatzeko. “2016an, Espainiako pobrezia-aren atalasea pertsonako 8.209 eurokoa zen; hau da, hilean 684 euro, nekazaritzako pertsona erretiratu batena baino % 4 soilik azpitik”<sup>72</sup>. 2015ean, 30 urteren ondoren, Europako Batzordeak esne-kuotak ezabatzea eta merkaturia liberalizatzea erabaki zuen. Ekoizpena arautzeko neurri hori gabe, sektorea merkatuaren aldakortasunaren eta nekazaritzako pentsio baxuek eragiten duten prekarietatearen are mendeago geratu zen.

Toledoko Ituna sinatzeaz batera, 1995ean, Espainiako estatuko pentsio-sistemen erreforma kontsekutiboak etorri ziren. Europako Batzordearen presioaren eraginez, eta doikuntza nagusi gisa, pentsioak murriztea erabaki zen, eta “modu zorrotzean” egin ere. “Sistema doitzeko elementu gisa pentsioak murriztea zalantzaragarria da ondorioengatik, baina horrez gain, bere oinarrian, kotizatu duzuna edozer dela ere, langileek ez dutelako inolako pentsiotarako eskubiderik. Sistema

70 Mauleón Gómez (1998), 73.

71 *Ibidem*, 74.

72 “¿Los jubilados agrarios cobran menos que el resto de jubilados en España?” *La Vanguardia*, 2018ko urtarrilaren 18a, <https://www.lavanguardia.com/local/valencia/20180119/44117127655/la-unio-denuncia-que-los-jubilados-agrarios-cobran-un-59-menos-que-el-resto.html>

orekatzeko behar den guztia murriztuko dute, kotizatutako urteengatik lortutako eskubide bat ere onartu gabe”<sup>73</sup>.

Murrizketa horien ondorioak ikusten ari gara dagoeneko. Pentsiodunak urtebete daramate mobilizazioetan, eta horren ondoren, “mugimendu horrek Bilbotik Estatu-ko gainerako lekuetara hedatu zituen Gizarte Segurantzaren prestazioen murrizketengatik protestak, eta joan den urtarrilaren 19an, larunbat arratsaldean, Bilbon indar erakustaldia egin zuen, duela urtebete sortu zen leku beran. Iturri ofizialen arabera, 30.000 lagunek [tartean nekazaritza sektoreko pertsonak] hartu dute kalea, Kale Nagusitik Udaletxeraino, “pentsio duinak” oihukatuz eta neguaren gogorrari aurre eginez”.<sup>74</sup>

**“Ez gaitu nekeak harrapatu. Duintasunaren aldeko borroka da. Adarra jotzen aritu zaizkigu”**

*Andrea Uña,  
pentsiodunen mugimenduko  
eledunetako bat*

Nekazaritzan belaunaldien txandaketari buruzko 7. helburua betetzeko, ezinbestekoa da erretiratzeko adina heldzean, pertsonak pensio duinetarako eskubidea izan dezaten. NPBren 1. helburuarekin lotuta dago hori; alde batetik errenta duinerako eskubidea erretiratuei ere aplikatu behar zaielako, eta bestetik, etorkizuneko pensioaren zenbatekoak jarduneko aldian egindako kotizazioen arabera izango direlako.

## **Baserritar agroekologikoentzako finantzaketa eta laguntzak**

### *Nekazari gazteentzako plana (GAZTENEK) eta NPBren laguntzak (4, 5, 6 eta 7 helburuak)*

Belaunaldien txandaketaren krisialdiaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen jarri ditu abian egoera iraultzen ahalegintzeko. Neka-

73 Zubiri, Ignacio (2016), “Las pensiones en España: situación y alternativas de reforma” Papeles de Economía Española, no. 147: 167.

74 Rioja Andueza, Iker (2019), “La llama de los pensionistas sigue viva: 30.000 personas en las calles de Bilbao un año después” Eldiario.es, 2019ko urtarrilaren 19a, online edizioa [https://www.eldiario.es/norte/euskadi/pensiones\\_0\\_858814416.html](https://www.eldiario.es/norte/euskadi/pensiones_0_858814416.html)

zari Gazteentzako Plana 2004an ezarri zen, eta hainbat finantza-bide (interés txikiko kredituak, inbertsioetarako finantzaketa-laguntzak eta diru-laguntzak) eskaintzen zituen 18 eta 40 urteko pertsonentzat, diru-sarreraren gutxienez % 50 eragiten zien nekazaritzako ekoizpen baten lehenengo 5 urteetan. Lehenengo 8 urteetan, ia 7,5 milioi euroko inbertsioa eskaini die Gaztenekek proiektuei eta 450 atxikitze berri lagundu ditu<sup>75</sup>. Finantzaketa funtsezko neurria izan daiteke 7. helburuari laguntzeko, baina 5. eta 6. helburuei laguntzeko (ingurumena zaintzea eta paisaia eta biodibertsitatea jagotea, hurrenez hurren) garrantzitsua da diru-laguntzak ingurumena errespetatzen eta zaintzen

**“Gero, dirua iristen hastean, 20 aldiz igual kobratuko dugu. Tantaka-tantaka. Bada [laguntza] bat, uste dut nekazaritza ekologikorako dela, dena batera iristen dena; gainerakoak zatika iristen dira. Urte batean, paper guztiak hartu eta Nekazaritzako Eskualdeko Bulegora joan nintzen, eta azalpenak eskatu nizkien. Baina han ere ez zuten ulertzen. Badirudi nahita eginda dagoela, ulertzerik izan ez dezazun. Zenbat kobratuko duzun ez dakizunez, horrela geratzen zara; edo urte batean esaten dizute diru-laguntza hori jada ez dagoela, eta kito. Etsigarria da.”**

*Emakume abeltzaina*

duen ekoizpen agroekologikoko eredu batera bideratuta egotea. Horrela, bada, la Via Campesinatik hasi eta Nazio Batuetako FAOraino, ados daude agroekologia dela klima-aldaketaren aurkako ekintza-modurik garrantzitsuenetako bat (4. helburua) planeta hozteko<sup>76</sup>.

Nekazari Gazteen Planak badu aurreko akats berberak egiteko arriskua nekazaritzako eta abeltzaintzako bestelako ekoizpen-eredu baten alde argi eta garbi egiten ez bada. Horren adierazgarri dira Elena Unzuetak, Bizkaiko Foru Aldundiaren bozeramaileak egindako adierazpenak: haren iritziz, FEADERek 2019an kofinantzatutako laguntzetarako lehentasunak dira “ustiategiaren egiturazko modernizazioan eta ekoizpen-prozesuetan teknologia berriak txertatzen laguntzea” eta “ekoizpen-sektorearen gaztetzea

75 <http://irekia.eus/es/news/15480>

76 Ikusi: <http://www.fao.org/agroecology/overview/en/> o <https://tv.viacampesina.org/Agroecology-cools-down-the-earth?lang=es>

ahalbidetzea, belaunaldien txandaketa eta jarduerari ekitea bultzatuz<sup>77</sup>. Horrela, bada, esleituriko 3,5 milioi eurotatik, 2,6 milioi euro modernizaziora bideratzen dira, eta 875.000 euro, belaunaldien txandaketa ahalbidetzeko. Hau da, aurrekontuak nekazaritza industrialaren alde egiten du nabarmen, hura, modernizazio gisa ulertuta, eredu agroekologikoan belaunaldi-txandaketa sustatu beharrean.

Beste alde batetik, Nekazaritzako Eskualdeko Bulegoen (OCA) eginkizuna funtsezkoa da. Formazio prozesuetan NPBr berari buruzko informazio gehiago txertatu beharra dago. Jarduerari atxikitzen zaizkion pertsonak ez dute argibide handirik jasotzen OCAtatik, eta horrek zalantzak eta segurtasunik eza eragiten ditu ekoizpena planifikatzerakoan. Gainera, OCAtatik sustatzen den ereduak baldintzatu egiten ditu instalazio berrietako erabakiak.

Diru-laguntza horiekin lehenengo instalazioak eragindako gastu orokorren ehuneko bat ordaintzen da eta gainerakoa funts propioekin eta/edo zorrarekin estaltzen da. Ekoizpen-eredu zehatz baten aldeko apustu argirik ezean eta, sektorea zorpetzea bultzatu duten politika andanaren ondoren, inkorporazio berrientzako gakoe-tako bat da diru-laguntzak neurri baliatzea. Eta diru-laguntzetatik beharrean saltzen dugunetik bizi ahal izango dugun bestelako eredu baterantz igarotzeko laguntza gisa erabiltzea.

**“NEBkoek animatu egiten zintuzten handi-maundika ibiltzeko, baina ez, guk apurka-apurka. Maneiatzen ikasi behar da. Eta apurka-apurka joatean, asmatu egin genuen.”**  
Gizon nekazaria

## Inkorporazio berrien lurrerako irisgarritasuna

(6, 7, 8 helburuak)

Kulturaren ikuspegitik, saldua galdua esaera zaharrak lagun diezaguke ulertzen urteetan zehar iraun izan duen baserriekiko familia-atxikipena. Hala eta guztiz ere, nekazaritzako jarduera uzten joan den

77 Europa Press (2018), “Diputación de Bizkaia destina 3,5 millones en 2019 a incorporar jóvenes al sector primario y financiar inversiones,” *Europa press*, 2018ko abenduaren 18a, <https://www.europapress.es/euskadi/noticia-diputacion-bizkaia-destina-35-millones-2019-incorporar-jovenes-sector-primario-financiar-inversiones-20181218141451.html>

**“Inor ezagutu gabe, ez da oso erraza lurra errentan ematea.”**

Emakume nekazaria

**“Gaur egunera arte, jendea joateko etortzen da, errentan bizitzeko. Familiak ez dira bertan finkatzen. Baserriak erortzen utzi, eta pinuetatik egiten da bizitza.”**

landa-herri bateko zinegotzial

**“Mundua aldatu egin da. Erabiltzen den lurra ez da gurea. Eta lehen dena hitzez lotzen zen, baina jendea hil egin da edo jarduerara utzi du, eta belaunaldi berriek ez dituzte gauzak berdin ulertzen.”**

Gizon abeltzaina

heinean, baserriak husten joan dira. Saldua galdua esaeraren logikak mugatu egin dezake herrietan familia berriak kokatzea; izan ere, iragaitzaz daudela sentitzen dute errentan bizi direlako, utzita dauden baserri edo bigarren etxebizitzaz inguratuta. Dinamika hori areagotu egiten da, herrietan pinuak edo mahatsa landatu baina hirietan bizi izateko joeraren ondorioz.

Beste alde batetik, errentaren nondik-norakoak adosteko hitzezko itunek erakusten duten nekazaritza-testuingurua oso tokikoa da: nor zer ekoizten duen jakina den eta auzokoen artean elkarriketa dagoen testuingurua, alegia. Baina, beste alde batetik, nekazaritzako sektorearen zahartzea eta lurra eskuratu nahi duen jendea iristearekin, konfiantza-sistema hori prekaritate-sistema bihurtzen da. Jabeak aldatzen doazen heinean eta familiaren lurra kudeatzeko erabakiak lehenengo sektorean lan egiten ez duten senitartekoek hartzen dituztenean, lehentasunak eta lurraren zeregina ulertzeko moduak urrundu egiten dira jabeen eta maizterren artean. Aldi berean, maizterrak aldatzen doazen heinean eta aurpegi eta abizenak herriko betikoak ez direnean, konfiantza desagertu egiten da, eta zaila da ahozko akordioak lortzea elkar ezagutzen ez duten pertsonen artean

Informaltasun honen aurrean, funtsezkoa da erakunde publikoen rola landa-eremu dinamikoak (8. helburua) izan badirela bermatzeko. Lur-bankuen ugalketa, lur publikoen lagatzea eta hiri-ortuak, esaterako, harreman horietan bitartekari izateko sortu diren ekimenak dira. Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritzako Lurzoru Funtsa da arlo horre-

tako adibiderik argiena. 2010ean jarri zen abian, eta funts horretan sartzen dira lursail publikoak eta lagapen edo dohaintzaz eskuratutako lursail pribatuak, berritar gazteei 5 urteko kontratu bidez errentan eskaintzeko; hartara, landa-eremuetako despopulazioa mugatzea, eta belaunaldien arteko txandakatzea sustatzeko<sup>78</sup>. Ia hamarkada bat igarota, programaren kudeaketara landa-garapeneko elkarteetara eskualdatzeko eta aurreko urteetan izandako lursail eta eskaera faltaren aurrean jarduteko mekanismoak berraztertzeke bidean dago.

**“Nik sartu ahal izan nuen, nor sartuko zen abizenei erreparatu aurretik erabaki zutelako. Niretzat garrantzitsua izan zen. Bazuten esaterik ‘geurea lehenengo’, baina ez da hala izan. Nahiago dut Administrazioak jabearekin hitz egitea. Izan ere, nire kasuan, jabeekin zuzenean hitz egitera joaten naizean, aurretik ia badakit ez didatela errentan eman-go. Kanpotik datorren batentzat beti izango da zailago.”**

*Gizon nekazari etorkina*

Udal mailan ere bestelako eredu batzuk garatu dira; hala nola, 2014an abian jarritako Zeberioko Nekazalgune planaren parte izan zen lur-bankua. Ekimen horren helburua izan zen biztanleria zahartua zuen udalerrri batean lehenengo sektorea berpiztea eta, aldi berean, enplegua sortzea. Erabilgarri jarritako lurak erabiltzeko hautaketa-irizpideetan honako hauek sartzen ziren: proiektuaren bideragarritasna, jasangarritasuna, agroekologia, genero-ikuspegiak txertatzea, enplegua sortzea eta erkidego-ikuspegia. Bi urtetan, 4 proiektu onartu zi-

**“Prezioak ez dira jabearentzat pizgarri izaten; hala ere, lurak baldintza berberetan edo hobeetan itzuliko diolako bermea badu. Lehiaketa nahiko itxia da, beraz, saiatu egingo gara arintzen eta jendea eta eskaintzak lotzen, lehiaketara jo behar izan gabe.”**

*Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionario*

ren baina plana eten egin zen herrian gobernu aldaketa egon zenean.

Esperientzia horien ondoren argi geratzen da paperean proiektu bat oso ederra izan arren, gauzatzekoan, lurra eskuratzeko aukera eman bai, baina funtzionamendua plana bera kudeatzen duten erakundeen dinamika politikoen arabera dela. Proiektu bat zenbat

**“Jakina, zalantza da zer gertatuko den aldaketa politikoa gertatzen denean. Eta adostasunik ez badago ere, zaila da hori iraultzea parte hartzeko prozesuak egin diren udalerrietan..”**

*Landa-herri bateko hiri antolamendurako plan orokorrerako teknikaria*

eta lotuago egon alderdi politiko jakin batekin, orduan eta aukera gehiago ditu aldekatasunak galtzeko gobernu aldaketa gertatzen denean. Alderdien dinamikaren barruan, adostasun handiena bilatzen duten prozesuak, aldiz, mantsoagoak izaten dira, baina, batzuetan, urrunago helitzen dira. Faktore horiek kontuan hartu behar dira lur-bankuen moduko ekimenei nola eutsi pentsatzen jartzean.

Lurraren prezioak ekoizpenerako behar den lursail guztia jabetzan lortzea ezinezko bihurtzen duenez, beste estrategia bat (7. helburua, belaunaldien txandaketa, lortzen laguntzen duena) da lursailak eta edukitza-moduen nahaste egoki bat bilatzea.

**“Apurka hartzen joan, erositara, errentan, berdin dio.”**

*Gizon nekazaria*

Ekoizpenerako lursailez gain, landa-eremuko etxebizitza ere funtsezkoa da baserritar berrientzat. Etxeak eta baratzak edo kortak ez dute, zertan, leku berean egon behar. Dagoeneko ez da aurreko eredu bera

**“Oso aberatsa izan behar duzu landa-eremuan etxebizitza duina edukitzeko”**

*Emakume nekazaria*

erabiltzen: belaunaldi anitzeko familia-etxea, behiekin eta ondoan baratza duela. Egungo Euskal Herrian belaunaldien txandaketa gertatzen denerako, kasu askotan, lanerako lekutik bereiz dagoen etxebizitza eskaini behar da.

Formula magikorik ez dagoen arren, lurra modu agroekologikoan landuta edukitzeko moduak bilatzea, jendea herrietan bizi dela, hori da

78 Nekazaritza Saila (2010), “Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 9ko 28/2010 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa sortu zuena” Pub.L. 28/2010, BAO zk. 51, 2010eko martxoaren 16a



paisaiak eta biodibertsitatea mantentzeko modurik onena (6. helburua).

## **Merkaturatzeko zirkuitu laburrak**

*(3, 7 eta 9. helburuak)*

Oro har, NPBk esportaziora eta nazioarteko merkatuetarako orientazioa sustatu du; eta horiek eskalako ekonomiak izan ohi dira. Horrek, ondorioz, eskala txikiko ekoizpenari oztupoak eragin dizkio. Gainera, ez du tokiko elikadura-ziurtasuna bermatzen, ez eta landa-eremurako hurbilpenik ez baloraziorik ere hirietako kontsumitzaileen artean. Kontraesana bada ere, tokiko merkatuei lagun diezaioketen espazio batzuk sortu dira liberalizaziorako neurriekin batera, NPBren barruan. Normalean, aukera horiek landa-garapenerako neurrien barruan agertzen dira. Neurri horietarako funts gutxiago bideratzen diren arren, bigarren euskarrirako plan estrategikoan jarduera horretara bideraturiko neurriak definitzeko aukera izango luke Eusko Jaurlaritzak. Gakoa beraz, COAGen hitzetan berriro ere, honako hau da:

Tokiko eta eskualdeko merkatu sendoak sustatzea; ekoizle guztientzat zabalik egongo diren merkatuak, eta bolumen txikietara eta langile gutxitara egokituriko arauak aplikatzea. Jantoki publikoen eta kantina kolektiboen tokiko hornikuntza sustatzea<sup>79</sup>.

Egoitzatan eta eskolako jantokietan erosketak publikoak egitea eta azpiegitura publikoak prestatzea ekoizle txikien eskura jartzeko; horiek izan daitezke lehenengo sek-

*“Beste alderdi garrantzitsu bat da ea proiektua ekoizpena bideratuta dagoen testuinguru batean kokatzen den. Dirurik ez izan arren, baduzu non saldu; eta hori, nik zuri azpiegiturarako dirua ematea baino garrantzitsuagoa da ia. Izan ere, lurra eta azpiegiturak garrantzitsuak dira, baina merkatuak gabe... Aurrera egin dezakezu, baina nekez, azpiegitura gabe... baina produktuak saltzeko lekurik gabe... Oso garrantzitsua da.”*

*Gizon nekazaria*

toreari lehenengoz atxikitzen zaizkion pertsonen laguntzeko modu garrantzitsuak. Hala ere, ekimenetako asko txikiak dira NPBren funtsak eskuratzeko, edo, bestela, laguntzei buruzko informazioa ez zaie iristen. Beraz, tokiko nekazaritzako ekonomiei (txikiei) beren beregi zuzenduriko bigarren euskarrirako funtsak zabaltzea baserriaren hurrengo belaunaldietarako testuinguru mesedegarriagoa lortzen lagun dezakeen neurri zehatzetako bat da. Hala ere, “tokiko esperimentazioari lagunduz, berrikuntza soziala sustatuz eta lurraldean elikadura-sistema jasangarriak eraikiz soilik ere betebeharrak beharrezkoak, nahierako aukerak daude kide diren Estatuentzat.”<sup>80</sup> Elikadura Sistema Jasangarrien Adituen Nazioarteko Panelak (IPES, ingeleseko siglen arabera) gomendatzen du NPBren funtsak eskuratu ahal izan aurretik, zerga-politika, politika sozial, osasun-politika, hezkuntza-politika eta erosketak publikoko politika publikoak kontuan hartuko dituen elikadura-ingurumen plan bat garatu eta ezarri beharko lukeela kide den Estatu bakoitzak<sup>81</sup>.

Ekoizle txikiei tokiko merkatuetara iristea ahalbidetzen dieten neurriak belaunaldien arteko txandaketa ez ezik (7. helburua), azkeneko hamarkadetan ustiategi handien mesedetan metatuta egon den elika-katearen boterea orekatzen ere laguntzen dute (3. helburua). Gainera, erkidegoa tokiko elikagai ekologikoekin elikatu ahal izateak zirkuitu laburragoa bermatzen du, kutsatzeko aukera gutxiago dituen, eta kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko konfiantza handitzen du, eta horrek guztiak 9. helburua (elikaduraren eta osasunaren kalitatea bermatzea) lortzen laguntzen du.

## **Nekazaritzarekiko sentiberak diren erakunde arteko**

*(2, 3, 7 eta 8. helburuak)*

Plan estrategikoak garatzeko prozesuaren parte bat da “aurretiaz tokiko testuinguruak aztertzea eta beharrezko ebaluazioa egitea” (57. aurretiazko kontsiderazioa). Azterketa horren arabera, identifikaturiko erronkei aurre egiteko adierazleak eta beharrezko neurriak zehaztuko dira. Politika publikoak definitzeko eta egiteko sistema berriak

<sup>79</sup> <http://coag.coag.org/post/los-13-puntos-clave-para-la-pac-post-2020-por-una-politica-agricola-y-alimentari-128052>

<sup>80</sup> De Schutter (2019), 24.

<sup>81</sup> *Ibidem*, 69

zehaztea denez kontua, prozesuan eragiteko aukera bat da. Neurriek benetan sektorearen premiei erantzuteko eta belaunaldien txandaketari laguntzeko (7. helburua), erakundeen eta lehenengo sektorearen arteko hurbilpena gertatu behar da, dibertsitate osoa kontuan hartuta.

**“Jakina, gobernuan lehenengo aldiz; ez zen landa-munduko jendea. Orduan ez zekiten gaiari nola ekin.”**

*Landa-herri bateko zinegotzia*

Egia da historian zehar ekoizle txikiak baztertu izan dituzten harreman instituzionalak ez direla goizetik gauera aldatuko NPB berria egote hutsagatik. Hala ere, Estatua ez da monolitikoa, lehenengo sektorea osatzen dutenak bezain askotarikoak diren pertsonak osatzen dute. Aliatuak bilatzea da gakoa. Kargu politikoak dituztenak, barrutik aldatzen ahalegintzen diren arren, ez dira beti landa-eremuko jatorrikoak, eta lehenengo sektoreko jendearekin ikuspegiak trukatzeko ezinbestekoa da begiratzeko moduak eta ezagutza zabaltzeko. Horrela, erakundeetan dauden pertsonen informazioa parteka dezakete aldatetaren aurrean dauden eragozpen eta/edo aukera politikoei buruz eta barneko dinamika instituzionalei buruz. Era berean, nekazariak ikuspegi berriak ekar ditzakete eta nekazaritzaren alorrarekiko sentiberatasuna eta ikuspegiak piztu ditzakete haien errealitatetik hain urrun dauden espazio burokratikoetan. Lankidetzaren horrek lotura dinamikoagoak lan ditzake agintarien eta landa-eremuetako biztanleen artean (8. helburua), eta ekoizle txikien beharriaz ere hobeto erantzun diezaike, eta ahalduz lagundu ustiaketa handien aurrean lehiakorrak izan daitezkeen (2 eta 3. helburuak).

**“Udalarekin, bi alderdiekin aritzean, beti zuzentzen zaizkio nire lagunari. LGEek egindako bilera guztietan, ni nintzen emakume bakarra.”**

*Emakume nekazaria*

**“Legebiltzarrean deigarria da. Oso arraroa da han behiak dituen pertsonaren bat egotea.”**

*Emakume abeltzaina eta Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkidea*

**“Herri txikietan, [erakundeen arteko harremanak] pertsonen arabera dira batik bat”.**

*Gizon nekazaria eta landa-herri bateko zinegotzia*

**“Uste dut diskurtsoa hartzen dugutela eta gero bestelako politikak egiten dituztela. Sarritan sentitzen duzu gonbidatzen zaituztela kontrastatzeko eta zu kokatzeko, eta ez politiketan eragiteko.”**

*Nekazaritzako sindikatuko teknikaria*

gertatzeko espazioak sortzeko. Elikadura-kontseiluak edo bai eta nekazaritzako sindikatuen eta erakundeen arteko noizean behingo bilerak ere, ideiak trukatzeko aukerak dira. Hala ere, erakundeak ez badaude prest lehenengo sektoreari erabakimena emateko, prozesuak ahuldu eta mesfidantza piztu liteke.

Prozesu horiek ahultzeko beste arrazoi bat da lehenengo sektoreko ordezkariak ez izatea landutako proposamen argirik. Nekazaritzaren mundutik proposamenak instituzioen hizkeran transmititu ahal izatea funtsezkoa da. EHNE Bizkaiaren eta Gaindegiaren arteko lankidetzaren modu-

koak –lurren mapatzea egin eta lurralde antolamendurako proposamen alternatiboak sortzeko– eskaerak hizkera horretara bihurtzen laguntzen ari dira jada.

Egin dira jada ahalegin batzuk hurbilpen hori eta ikuspegi-trukea



Irudia: La Vía Campesina<sup>82</sup>

82 <https://viacampesina.org/es/16-de-octubre-dia-de-accion-global-por-la-soberania-alimentaria/>

#### 4. SEKZIOA

## NPBtik harago

## begiratzea

Elikadura-burujabetza elikadura-politiketara bideratzeko

**NPBren erreformak ez dakar eredu aldaketarik, elikadura-burujabetzak, aldiz, bai**

• • •

NPBk belaunaldien txandaketa horrenbesteraino baldintzatzen duenez, ezinbestekoa da plan estrategikoek hura aldatzeko eskaintzen dituzten aukerak baliatzen ahalegintzea. Beste alde batetik, NPBk ez du eredu-aldaketaren aldeko apustu argirik egiten. Kontraesan hori nabarmen bihurtzen da NPBn ingurumenari buruzko neurrien txertaketa kontuan hartzen badugu. Hortaz, NPB berriaren balioek eta helburuek, Phil Hogan, Nekazaritza eta Landa-garapenerako Europako komisarioaren hitzetan, “gure herritarren elikadura-segurtasuna, baliabide naturalen erabilpen jasagarria, ekintza klimatikoa eta ingurumenaren zaintza eta landa-herrien oparotasuna bermatuko duen nekazaritza sektore bideragarria” dute oinarri.<sup>83</sup>

Helburu horiek lortzeko, malgutasun handiagoa eta zenbait mekanismo berri proposatzen dira, lehenengo euskarriko eko-programak, kasu. Baina ingurumenari buruzko neurriak ezarri nahi ez badituzte ere, oso betebehar gutxi daude kide diren Estatuentza medioambientales<sup>84</sup>.

83 [https://ec.europa.eu/commission/commissioners/2014-2019/hogan/announcements/speech-commissioner-phil-hogan-new-cap-delivery-model-event-enrd-rural-development-managing\\_en](https://ec.europa.eu/commission/commissioners/2014-2019/hogan/announcements/speech-commissioner-phil-hogan-new-cap-delivery-model-event-enrd-rural-development-managing_en)

84 Matthews, Alan (2018), “The greening architecture in the new CAP | CAP reform,” *CAP Reform. Eu* (blog), 20 de junio de 2018, <http://capreform.eu/the-greening-architecture-in-the-new-cap/>

## Eko-programak, ECVCren arabera:

nekazariei zenbait jardun ordaintzeko tresnak izan litezke: larreak, lekadunak, nekazaritza organikoa, azpiegitura ekologikoa, landaketa eta biodibertsitate handia, laboreen txandaketa, etab. Hala ere, ez al lirateke 2. euskarriarekiko errepikakorrak izango, hain zuzen ere ingurumenari, klimari, eta abarri buruzko neurriekiko? Tresna hori lehenengo euskarrian sartu izanak, ez al du adierazten NP Bren erreforma proposamenean nekazaritza-eredu jasangarriaren eta agroekologiarantz doan prozesuaren aldeko zehaztapenik eta apusturik eza?<sup>85</sup>

Hala da, proposamen horren barruan interpretazio asko sar litezke, jasangarriak esan nahi duenaren oso bestelakoak. Esaterako, munduko ongari mineralen ekoizlerik handiena<sup>86</sup>, Yara korporazioa, GRAINen hitzetan “elikaduraren eremuan petrolio-konpainien baliokidea da: nekazariei lurlean txertatzeko saltzen zaizkien produktuak nekazaritzatik datozen emisio-iturririk handiena dira<sup>87</sup>” bat dator Hogan komisarioak esaten duenarekin: “Ongari mineralen sektorean aitzindari izanik, Yarak konponbideak eskaintzen ditu ingurumena eta nekazaritzaren alderdi ekonomikoak orekatzeko. Beraz, guretzat ongietorriak dira eko-programak eta NP Bren erreforma-proposamenean nutrien-teak erabiltzeko planak txertatu izana.”<sup>88</sup>

Horrela ikusita, eko-programek eta ingurumenaren aldeko diskurtsoek indarra galtzen dute, ez baitute ekoizpen-ereduan aldaketarik abiarazten.

85 ECVC (2018), “ECVC analysis of the proposed regulation for the CAP 2012-2027 reform and the strategic plans”, Bruselas, <https://www.eurovia.org/wp-content/uploads/2018/08/2018-08-06-New-CAP-document-EN.pdf>

86 Martin, Jena eta Karen E. Bravo (2006), *The business and human rights landscape; moving forward, looking back*, New York: Cambridge University Press, 187.

87 GRAIN (2015), “Las Exxons de la agricultura,” A Contrapelo <https://www.grain.org/article/entries/5276-las-exxons-de-la-agricultura>

88 <https://www.euractiv.com/section/agriculture-food/opinion/cap-reforms-eco-schemes-eco-logic-or-eco-nomic-why-not-both/>

## ECVCk proposatzen duen bezala:

Hori da gure kritiken funtsa: badirudi Europako erkidegoa ez dela jabetu planetak aurrean dituen erronken garrantziaz: ingurumena, aldaketa klimatikoa, elikadura, gizarte-kohesioa eta enplegua, ez eta nekazaritzak parte izan behar duela ere eredu-jasangarrietara eta nekazaritza agroekologikoetarako prozesuetan. Hori egiteko, beharrezkoa da zehatz-mehatz definitzea zer eredutara iritsi nahi dugun, trantsizio hori ahalbidetu eta sustatuko duten neurrien plangintza egitea eta modu jasangarriaren ekoizpena eta nekazaritza agroekologikoa diharduten baserriak balioestea.”<sup>89</sup>

Gaur egun, NP Bk sustatzen duen eredu agroindustrialaren aurreko eredurik argiena elikadura-burujabetza da. Elikadura-burujabetza ekoizpen agroekologiko eta nekazarian, hurbileko ekoizpenean oinarritzen den ekoizpen-eredua proposatzen duen kontzeptua da. Elikagaiak ekoizteko modu hori ziklo naturalak berreskuratzea eta elikadura osasungarria bermatzera bideratuta dago. Elikadura-burujabetzak erdigunean jartzen du lurra lantzen dutenen duintasuna, eta landa-eremuko bizimodua despopulazioaren aurrean birbalioesten du. Belaunaldi berriek nekazaritzako ekoizpenarekin duten ustezko interesik eza, benetan, porrot egin duen ekoizpen-eredu batekiko interesik eza da. Baserrian duintasunez bizitzea ahalbidetzen ez duen eredu, ekosistemak jasangarritasuna bermatzen ez duen eredu. Elikadura-burujabetzaren aldeko mugimendua indartzen ari da European, Euskaditik<sup>90</sup> Errumania<sup>91</sup>, eta horrek erakusten du badagoela interesik, belaualdien arteko txandaketa posible dela<sup>92</sup>. Hesi politikoekin egiten du topo, ordea. Hori dela eta, NP Bren erreforma funtsezkoa da hesi historikoak trantsizioa bidean laguntzeko tresna bihurtzeko. Baina hori ez da nahikoa; elikadura-burujabetza eraiki eta belaualdien txandaketa bermatzeko, NP Btik urrunago doazen aldaketak behar dira.

89 <https://www.eurovia.org/wp-content/uploads/2018/08/2018-08-06-New-CAP-document-EN.pdf> p. 3

90 <http://www.elikaherria.eus/etxalde/?lang=es>

91 <https://ecoruralis.ro/web/en/>

92 Monllor i Rico, Neus eta Anthony M. Fuller (2016), “Newcomers to farming: towards a new rurality in Europe”, *Documents d'Anàlisi Geogràfica* 62, no.3 (2016ko irailaren 22a): 531, <https://doi.org/10.5565/rev/dag.376>; Calvário, Rita (2017) “Food sovereignty and new peasantries: on re-peasantization and counter-hegemonic contestations in the Basque territory,” *The Journal of Peasant Studies* 44, no. 2 (2017ko martxoaren 4a): 402–20, <https://doi.org/10.1080/03066150.2016.1259219>; Van der Ploeg, Jan Douwe (2013) *Peasants and the art of farming; a Chayanovian Manifesto*, Agrarian Change and Peasant Studies 2, Halifax and Winnipeg: Fernwood Publishing

## Merkataritza askeko itunak (MAI) etetea



Elikadura-burujabetza 90.eko hamarkadan sortu zen proposamena izan zen, eta nekazaritza merkataritza askeko itunetatik kanpo geratzeko eskatzeko GATTeK eta MMAren kontrako taldeko borroka globalaren emaitza izan zen. NPBren erreformak, 1992az geroztik, MMAri atxiki izan zaizkio eta esportaziora bideraturiko liberalizazio eta orientazio prozesu bat sakondu du. Lehenengo euskarriko funtsak, NPBren gastuaren % 70 alegia, merkatuen erregulaziotik urruntzen joan dira gero eta gehiago. Horrek esan nahi du merkatuak erregulatu dituzten (edo ez) MMAren merkataritza politikak direla nekazaritzako sektorerako garrantzitsuenak. Europan, merkataritza askeko itunak ugaritu egin dira korporazio multinazionalen interesei mesede egiteko. ECVCren hitzetan:

EKorporazio horiek munduko hainbat eskualdetan eragiten ari den krisialdi ekonomikoaren aurreko konponbide gisa aurkeztu izan dira. Hala ere, Merkataritza Askeko Itunen bidez, euren boterea eta aberastasunak handitzea besterik ez dute bultzatzen. Hortaz, gure erakunde publikoak itotzen dituzte, araudiak zapuzten dituzte (laneakoak, ingurumenari eta osasunari buruzkoak) eta gizarte zibila erreforma sozialen aldeko gure borroka neutralizatzen ahalegintzen dira.

Guretzat, nekazariontzat, erronkak are handiagoak dira oraindik. Alde batetik, gure eskualdeetako gairik inoiz ageratu gabeko dumpinga daukagu. Guretzat hori oso kolpe gogorra da, hain prezio murriztekin ezin dugulako ez ekoizpen-kosturik estali ez gutxieneko soldatarik bermatu. Beste alde batetik, politika publikoak geldiarazten dituzten merkataritza askeko itunek –Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) kasu– indarrean dauden araudiak uztea eta ekoizpena munduko merkatura eta elikadura-kate industriale-ra doitzeko kontrolatu behar izatea eragiten dute, horietan, hornitzaile merkeenak lortzen baititu esportazioak. Iruzurra da nekazariak, kontsumitzaileak eta naturak enpresa handiek dituzten interes berberak dituztela esatea.<sup>93</sup>

93 ECVC (2019), "CETA & Co: un atentado contra los derechos de los agricultores y los trabajadores," <https://www.eurovia.org/es/ceta-co-un-atentado-contra-los-derechos-de-los-agricultores-y-los-trabajadores/>

Horrela, ekoizpen agroekologikoari eta elikadura-burujabetzaren erai-kuntzari laguntzeko, oso garrantzitsua da oraindik ere –90.eko urteetan bezala– merkataritza askeko itunen kontrako borrokei eustea eta laguntzea. COAGen hitzetan "dagoeneko sinatuta dauden ustezko 'merkataritza askeko' itunak berrikusi egin behar dira. Berrespen eta negoziazio prozesuetan dauden merkataritza askeko itunak etenarazi egin behar dira."<sup>94</sup>

## Nekazaritzako politikatik elikadura-politiketara



Elikadura-burujabetzaren ikuspegiak nabarmendu egiten du zenbateraino dauden lotuta nekazaritzaren esparrua eta osasuna, kultura, ekonomia eta bizimodu soziala. Elikagaien ekoizpena bizitzaren beraren oinarria da. Beraz, nekazaritzaren sektoreari dagozkion politikak, benetan, gizarte osoari dagozkio. Osasun-politikatik hasi eta hondakinen kudeaketaraino, elikadura-burujabetza eraikitzeak elikadura-sistema osotasunean berrantolatzea dakar. Proiektu horren barruan, NPB nagusitzen da oraindik. Baina NPB nekazarien kontua dela ulertzea Europar Batasunean bizi eta bertan elikatzen diren pertsona guztiek, janariaren bidez, nekazaritzaren munduarekin duten funtsezko lotura hori ukatzea izango litzateke. Txosten honetan deskribatu ditugun beharrezko aldaketak ezinezkoak izango dira nekazarien mugimenduek soilik gauzatuko dituztela espero badugu. Euskadin, nekazaritzaren sektorea populazioaren % 1 besterik ez da. Politika publikoen eraikuntzan eragiteko aliantzak sendotzea funtsezkoa da, NPBren erreforman batik bat. Baina beste gakoetako bat da onartzea, benetan, NPB ez dela nekazaritza politika soilik, baizik eta jendarte osoari dagokion elikadura-politika.

***"Gakoa jendartean dago. Elikadura-burujabetza den erantzukizuna da."***  
*nekazaritzako sindikatu bateko teknikaria*

tema osotasunean berrantolatzea dakar. Proiektu horren barruan, NPB nagusitzen da oraindik. Baina NPB nekazarien kontua dela ulertzea Europar Batasunean bizi eta bertan elikatzen diren pertsona guztiek, janariaren bidez, nekazaritzaren munduarekin duten funtsezko lotura hori ukatzea izango litzateke. Txosten honetan deskribatu ditugun beharrezko aldaketak ezinezkoak izango dira nekazarien mugimenduek soilik gauzatuko dituztela espero badugu. Euskadin, nekazaritzaren sektorea populazioaren % 1 besterik ez da. Politika publikoen eraikuntzan eragiteko aliantzak sendotzea funtsezkoa da, NPBren erreforman batik bat. Baina beste gakoetako bat da onartzea, benetan, NPB ez dela nekazaritza politika soilik, baizik eta jendarte osoari dagokion elikadura-politika.

94 <http://coag.coag.org/post/los-13-puntos-clave-para-la-pac-post-2020-por-una-politica-agricola-y-alimentari-128052>

Horrek hainbat agenzia, erakunde eta gobernantza mailaren arteko koordinazioa eskatuko luke.

Politika publikoaren eremu desberdinen ikuspegi loturik gabe “sinergia asko galtzen dira eta helburu kontraesankorrak sortzen dira [...] Nekazaritza, ingurumena, osasuna, merkataritza, garapena, lan-kidetzak, ikerketa eta berrikuntza: politika publikoko arlo horietako bakoitzak zuzendari nagusi bat (ZN) du Europako Batzordean; hala ere, denek eragiten dute zer elikagai eta nola ekoizten dugun, nola kontsumitzen ditugun eta nolakoa izango den gure elikadura-sistemaren etorkizuna. Elikadura-sistema jasangarriak eraikitzeke politika desberdinak ildokatzeko elikadura-politikarik ez edukitzeak ondorio larriak ditu”.<sup>95</sup>

**“Nahiz eta abeltzainen herri bateko udaletxean egon, iruditzen zait gaitzela honek, eta sektore hau goragoko politiken, beste erakunde batzuen mende dagoela. Beti ahalegintzen gara hurbiltasunez jokatzeko. Sektoreari buruzko erabakiak hartu behar izan ditugu, eta hor zuzeneko harremana bilatu dugu.”**  
*Landa-herri bateko alkatea*

Azken urteetan, Euskadin hainbat udal-ekimen izan dira landa-eremu bizia sustatzeko, belaunaldien txandaketa errazteko eta elikagaien ekoizpen-eredua tokian tokian eraldatzeko<sup>96</sup>. Udalek eraldaketarako espazioa izan daitezkeela erakutsi dute. NPBren funtsek sare sendo eta konplexua igaro behar dute agenzia eta bulego publikoetan zehar; baina sare horretan, udaletatik oso gutxi igarotzen da. Horrek NPBren definiziotik eta kudeaketatik kanpo uzten du tokiko nekazaritza-errealitateetatik hurbilen dagoen erakundeetako bat. Plan estrategikoen definizioan udalak gehiago inplikatzeko izango litzateke dauden udal-ekimenean eta NPB berriaren arteko zubi-lana egiteko modua.

<sup>95</sup> De Schutter (2019), 6.

<sup>96</sup> Brent, Zoe W (2018), “Building social muscle to transform food systems: insights from the European local public policy landscape”, Think piece series: food for thought (Bilbao and Amsterdam: Transnational Institute (TNI), 2018), [https://www.tni.org/files/publication-downloads/web\\_buidling\\_social\\_muscle.pdf](https://www.tni.org/files/publication-downloads/web_buidling_social_muscle.pdf); Sylvia Kay, Sylvia (2016), “Connecting smallholders to markets: an analytical guide”, International Civil Society Mechanism, Hands On the Land Alliance for Food Sovereignty

**“Gauza asko ez dira jakinarazten. Eta udal asko ez dira ezertaz jabetzen. Denek jakinaren gainean eta harremanetan egon beharko genuke, gauza asko errepikatzen dira. Oraindik ere leku askotan, jende asko oso lurraldekoia da informazioarekin.”**  
*Landa-garapeneko teknikaria*

Sektoreen eta agentzien artean ere, European, koordinazio falta handia dago. Europako Parlamentuak berak onartzen du nekazaritzaren esparruak lehenengo sektoretik haragoko eremuetan eragiten duela. “Jakina da kontsumo ohiturek osasun publikoan eragiten dutela. Nekazaritza-politikak osasun-politikei lotuta daude elikadurarekin duten harremanetatik eta, sarritan, bai eta elikagaiak ekoizteko moduarekin ere.”<sup>97</sup>

Elikadura gai poliedrikoa da. Elikadura-politikaren ikuspegiak tokiko nekazaritza sektorearen ezagutza eta harekiko harremana izan behar ditu iturburu; baina tokiko agintarien eta gobernantzaren bestelako maila batzuen arteko koordinazio eta konexio handiagoak ere eskatzen ditu.

<sup>97</sup> Europako Batzordea (2018), “Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudi Proposamena, Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) baitan, kide diren Estatuak egin behar dituzten Plan Estrategikoetarako, Nekazaritzako Europako Nekazaritza Funtza (FEAGA) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (FEADER) pentzudaren finantzatutako laguntzari dagozkion arauak ezartzen dituen eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 zenbakidun Araudia (UE) indargabetzen duena” 2.

## 5. SEKZIOA

# Ondorioak

## NPBri buruzko eztabaida sozialerako hurrengo urrats eta aliantzak

Azkeneko sekzio honetan elementu batzuk azpimarratu nahi ditugu txosten honen ondorio gisa.

### NPBtik urrunago ere begiratzeak duen garrantzia

Txosten honetan agerian utzi dugu behin baino gehiagotan belaunaldien txandaketa bermatzeko funtsezkoa dela eredu aldaketa. Aldiz, aldaketa hori ezin da NPBren eremura mugatu; izan ere, 1995.az geroztik ikusi ahal izan dugun bezala, NPB osoa MMAren diziplinaren mende dago erabat. Beraz, ezin dira erkidegoko politika honen egituraren aldaketak eragin merkataritza askeko itunei ekin gabe. Beraz, epe laburreko helburua ez den arren, ezin dugu urrunagoko ikuspegi hori galdu; ezin diogu naziozgaindiko enpresak eta nazioarteko finantza-enpresak merkataritza-itunen eta inbertsioen, xedapenen, arau eta epaimahai arbitralen bidez lotzen dituen bilbe horri arretaz begiratzeari utzi.

Hori dela eta, MMAtik eratortzen diren politika neoliberalen eta MAlen aurka borrokatzen eta elikadura-burujabetza erreibindikatzen jarraitu behar dugu nekazaritzaren, elikaduraren eta jite sozialeko eta interes orokorreko politika publikoak gure erakundeetan ezartzeko erabakitze gaitasuna berreskuratzeko.

### Mintzo gaitzen elikadura-politikez

Ikusi dugu Nekazaritza Politika Bateratuak nekazaritzaren eremua baldintzatzeaz gain elikadura-ereduan ere eragiten duela. Hori dela eta, belaunaldien txandaketari elikagaiak ekoizteko ereduaren aldaketaren ikuspegitik ekin behar zaio, eta horrela, elikadura-politikez mintzatu ahal izango gara. Horren ildoan, garrantzitsua da IPES FOODen eta Europako beste 400 erakunderen (tartean, ECVC) pro-

posamenetatik abiatzen den Europako ekimen berria; European Nekazaritza Politika Bateratua eta Elikadura Sistema Jasangarrien alorreko Europako Batzordean Presidenteordetza bat sortzea erreibindikatzen dituen.

Gainera, elikadura-burujabetzan oinarrituriko hainbat adibide daude etorkizun jasangarriago baterako bidea erakusteko; horrek enplegu gehiago ekarriko du, eta nekazaritzako etorkizuneko belaunaldientzako mesedegarriagoak dira.

### Plan Estrategikoak aukera gisa

NPB bi aldeko tresna politikoa da. Alde batetik, eredu agroindustrial sustatu du, eta horrek elikadura-burujabetzan eta ekoizpen agroekologikoan oinarrituriko eredu eraikitze aukerak mugatu ditu. Beste alde batetik, lehenengo sektorerako beharrezko (gaur egun, behinik behin) den laguntza eskaintzen du. Erreforma honekin eragin politiko handiagoa edukitzeko eta NPB belaunaldi berriei laguntzeko, eragozpena izan beharrez, tresna hobe bihurtzeko aukera zabaltzen da. Hortaz, mugak muga direla kontuan hartuta, plan estrategikoen definizioak lurralde bakoitzerako neurri espezifikoak txertatzeko ematen duen aukera ahalik eta gehien aprobetxatzea da kontua.

### NPBri buruzko eztabaida sozialaren beharra

Aukera hori guztiz baliatzea, hein handi batean, NPBri buruzko eztabaida gizarteratzeko gai izatearen arabera izango da; belaunaldien txandaketa bermatzeko ez ezik, belaunaldi berriek izango dituzten arronka ekologiko, sozial, ekonomiko eta kulturaleri aurre egiteko ere. Elikadura-burujabetza eraikitze bidean da, eta aukerak badirela erakusten ari da. Txosten honetan aipatu dugun bezala, nekazarien erakundeek ezin dute lan hori bakarka egin, NPBk eta elikadura-sistemak denoi eragiten digulako, eta ez nekazariei soilik. Inplikazio handia beharko da proposamen garbiak sortzeko eta erakundeak zabaltzen direla identifikatzeko plan estrategikoak lantzeko prozesuan zehar; bai eta bestelako ekoizpen eta elikadura ereduak eraikitze ere, NPBren neurrietatik harago.

*Izenburua: Nekazaritzako etorkizuneko belaunaldiak NPBren erreformaren aurrean: euskal baserritar mugimendutik begira*

*Egilea: Zoe Brent*

*Erreferentzia-taldea: Amets Ladislao, Garikoitz Aiesta, Jabier Azpitarte, Helen Groome, Esti Besa, Maite Aristegi, Alberto Llona, Andoni Garcia, Alazne Intxauspe, Imanol Larizgoitia (Txato), Unzalu Salterain, Miren Saiz, Alicia López de Muniain, Maritxu Arroyo eta Ixone Llorente.*

*Diseinua eta maketazioa: Higinia Garay*

*Euskararako itzulpena: Maku Florentino*

*Ingeleserako itzulpena: Zoe Brent*

*Argitaratze-data: 2019ko iraila*

*Koordinatzailea:*

#### **Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra**

*Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra mugimendua baserritarrek bultzatzen dute (haiek dira gunen nagusia), eta zabalik dago nekazaritzari loturik dauden eta elikadura-burujabetzarantzko aldaketa sozialeko prozesu baten alde jarduten duten Euskal Herri osoko pertsona eta kolektiboentzat. Baserritar talde batek landutako gogoeta-prozesu sakon bati esker, baserritarrek bizi duten eragozpen eta mendekotasun egoera hori iraultzeko, oinarri sendoak eta argiak eraikitzen lagunduko duen erakundea abian jartzea ahalbidetu zuen gizartearen gainerakoekin aliantzan. Elgetan izan zituzten lehenengo topaketa haietan parte hartu zuten pertsonen beharrezkotzat jo zuten talde gisa antolatzea eta nekazaritza jasangarriaren bidetik alternatiba eraldatzaileak ahalbidetzeko bideak zabaltzea. Mugimendu horren sorburua proposamenak eta eztabaidak taldean eraikitzeko bokazioa da. Egungo sistemaren kontraboterea egituratzea du xede, elikadura-burujabetzaren garapena ekarriko duten tresnak, mekanismoak eta sareak egituratzeko.*

#### **Bizilur**

*Bizilur 2002an sortu zen Euskal Herriko eta nazioarteko nekazaritzako sindikalismoan lotura sendoak eta lan eta militantzia ibilbide luzea zuten pertsonen erakunde gisa. Erakunde asanblearioa da, eta haren iritziak, pertsonen eta herriek pairatzen ditugun pobrezien, desberdintasun globalen, mendekotasunen eta zapalkuntzen jatorria bizi dugun askotariko mendekotasun-sistema da: neoliberala, inperialista eta heteropatriarkala. Diagnostiko horretan oinarrituta, sistema horri aurre egitea aspaldi lortu nahi den helburua da, mugimendu sozial askatzaileen laguntzarekin.*

*Elkartearen jatorriak berak eta esperientziak eta kezkek zehaztu dute erakundearen arreta-ardatza landa-eremua eta nekazarien borrokak, tokikoak eta globalak, izango direla. Horren ildoan, nekazarien mugimenduak eta mugimendutik eraiki duten proposamena, elikadura-burujabetza, alegia, funtsezkoa da herriek bere elikadura eta ekoizpen-sistema erabakitzeke duten eskubidean oinarritzen den harreman sozial berriak eraikitzeke proposamen teoriko, praktikoa eta politikoa gisa.*

*Onorioz, Bizilurren lanaren ardatza La Via Campesinari eta Zapatisten Mugimenduari laguntzea da nazioartean, eta hemen, EHNE-Bizkaiari eta Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra mugimenduari; elikadura-burujabetzarantz jotzeko eta aldaketa gauzatzeko eragile garrantzitsuenetakoak direlako.*